



**MONDRAGON
UNIBERTSITATEA**

HUMANITATE ETA
HEZKUNTZA
ZIENTZIEN
FAKULTATEA

HUMANITATEAK-ENPRESA, KAP 2001

Gizarte Ekonomiaren printzipioak Euskal Kulturgintzako Erakundeetan

Egilea: Naroa Olalde Artetxe

Tutorea: Jon Sarasua

2001-09-10

AURKIBIDEA

- Abstrakt.....	4
1.- Aurkezpena.....	6
2.- Helburuak.....	7
3.- Kokapen teorikoa.....	8
- Zer da Gizarte Ekonomia?	8
o Zenbait datu	
o Gizarte Ekonomia, errealitate konplexua	
- Zer dira Euskararen Gizarte Erakundeak?	12
o Euskaltegiak	
o Komunikabideak	
o Euskara lan munduan sustatzeko enpresak	
o Guraso Elkarateak	
o Herri mugimenduak	
o Kultura	
o Argitaletxeak	
4.- Metodología.....	19
- Hurbilpen teorikoa.....	19
- Unibertsoa aukeratu.....	19
- Lagina aukeratu.....	20
- Proiektuaren pausoak.....	21
- Datuen prozesamendua.....	22
5.- Emaitzak.....	23
- Erakundeen irabazi asmoa eta hauen erabilera.....	23
o Euskaltegiak	
o Euskara lan munduan sustatzeko enpresak	
o Komunikabideak	
o Guraso Elkarateak	
o Herri mugimenduak	
o Kultura	
o Argitaletxeak	
o LABURBILDUZ	
- Antolaketa demokratikoa eta funtzionamendu partehartzailea.....	29
o Jabetza mailako partehartzea.....	34
▪ Euskaltegiak	
▪ Euskara lan munduan sustatzeko enpresak	
▪ Komunikabideak	
▪ Guraso Elkarateak	
▪ Herri mugimenduak	
▪ Kultura	

▪ Argitaletxeak	
▪ LABURBILDUZ	
○ Laneko funtzionamendua.....	38
▪ Euskaltegiak	
▪ Euskara lan munduan sustatzeko enpresak	
▪ Komunikabideak	
▪ Guraso Elkarateak	
▪ Herri mugimenduak	
▪ Kultura	
▪ Argitaletxeak	
▪ LABURBILDUZ	
○ Bilakaera.....	44
○ Hedapena.....	45
- Ordainketa mailako elkartasuna.....	46
○ Euskaltegiak	
○ Euskara lan munduan sustatzeko enpresak	
○ Komunikabideak	
○ Guraso Elkarateak	
○ Herri mugimenduak	
○ Kultura	
○ Argitaletxeak	
○ LABURBILDUZ	
- Interkooperazioa.....	51
○ Euskaltegiak	
○ Euskara lan munduan sustatzeko enpresak	
○ Komunikabideak	
○ Guraso Elkarateak	
○ Herri mugimenduak	
○ Kultura	
○ Argitaletxeak	
○ LABURBILDUZ	
6.- Ondorioak.....	57
7.- Bibliografia.....	59
8.- Anexoak.....	60

ABSTRAKT

Eskuarteetan duzun Proiektu honen egitekoa Euskararen Gizarte Erakundeetan, euskara normalizatzeko lanean ari diren erakunde anitzetan, Gizarte Ekonomiaren printzipiorik dagoen edo ez aztertzea da.

Gero eta gehiago entzuten den terminoa da Gizarte Ekonomiarena. Bere oinarrien artean partehartzea, solidaritatea, gizarte guztiarentzako aberastasunak sortzea, e.a. daude. Euskara eta euskal kulturaren lanean ari diren errealitateetan ere behin baino gehiagotan entzun izan dira filosofia partehartzailearen inguruko ideiak, irabaziei kasu gehiegi egin gabe urteetan lan egin duten pertsonen izenak, ... Beraz, lan honen zeregina bi errealitate hauek uztartzea izango litzateke.

Lehenengo zeregina Gizarte Ekonomia definitzea izango da. Bere ezaugarriak bereiztu, bere garrantzia ezagutu, eta historian pixka bat arakatzea. Gauza bera egingo da Euskararen Gizarte Erakundeekin ere, beraien ezaugarriak aipatu eta zein diren zehaztu. Jarraian Euskararen Gizarte Erakunde desberdinetan bildutako emaitzak ezagutarazten dira. Lanaren oinarri diren lau puntuetan banatuta; erakundearen irabazi asmoa, partehartzea, soldadak eta interkooperazioa. Azkenean euskal kulturgintzan Gizarte Ekonomia hitz egin daitekeen edo ez ondorioztatzera iristeko aukera eskainiz.

El fin ultimo del trabajo que tienes entre manos es el de saber si es licito hablar de Economía Social a la hora de referirnos a las distintas entidades que están trabajando en torno al euskera y a la cultura vasca.

El termino de Economía Social es un termino desconocido pero que se esta poniendo en boga en los últimos años. Sus bases serian la participación, la solidaridad, el fin social antes que el capital,... Características que muchas veces se han asociado a las distintas realidades que trabajan en torno a la lengua vasca y a la cultura vasca.

El primer quehacer será el de definir el termino de Economía Social. Conocer sus características y su importancia y hacer un poco de historia. Se hará lo mismo en lo referente a las distintas realidades que se dedican a la lengua y cultura vasca, se comentaran sus características y se definirá que entidades serán la base del proyecto. A continuación se ofrecerán los datos ofrecidos por dichas entidades, agrupadas en los cuatro puntos en los que se basa el proyecto; el animo de lucro, la participación, los sueldos y la ínter cooperación. Para al finar concluir si existe o no la Economía Social en las variadas entidades que se dedican al mundo del euskera y la cultura vasca.

Humanitateak-enpresa, KAP 2001

Gizarte Ekonomiaren printzipioak Euskararen Gizarte Erakundeetan

HUMANITATE ETA
HEZKUNTZA ZIENTZIEN
FAKULTATEA



The objective of the work that you have in hand is the one of knowing if it is I bid to speak of Social Economy at the time of referring us to the different organizations that are working around the euskera and to the Basque culture.

I finish of Social Economy is stranger but who this putting itself in rows in the last years. Their bases are the participation, solidarity, the social aim before the capital... Characteristic that often have been associated to the different realities that work around the Basque language and to the Basque culture.

The first task will be define the Social Economy. To know its characteristics and their importance and of doing a little of history. It will be made the same respect to the different realities that dedicate to the language and Basque culture, commented his characteristics and defined the organizations will be the base of the project. Next appears the results offered by these organizations, grouped in the four points which is bases the project; animate of profit, the participation, the pays and ínter cooperation. It stops to conclude if exists or not Social Economy in the varied organizations that are dedicated the world of euskera.

1.-AURKEZPENA

Proiektu hau LANKI institutuaren baitan sortu da. LANKI Ikertegia Mondragon Unibertsitatearen baitako institutua da. Bere egitekoa, unibertsitateari, kooperatiba-erakundeei eta beste eskatzaileei goi mailako ikerketa, gogoeta eta formazio zerbitzua eskaintzea da, lankidetzan oinarritutako gizarte eraldaketaren garabideetan.

Ikerketaren honen objetua Kontseiluko bazkide diren Euskararen Gizarte Erakundeak (EGEak) izango dira, guztira 46. Hauen artean enpresak, elkarteak, fundazioak eta beste figura juridikoak sartzen dira. Aztertu nahi dena berriz erakunde hauek Gizarte Ekonomiarekin zerikusik ba al duten edo ez da. Hitz egin al daiteke Gizarte Ekonomiaz euskararen munduan mugitzen diren erakundeetan? Zein dira erakunde hauen oinarriak? Nola antolatzen dira? Zer eskaintzen diete gizarteari?.

Galdera hauek eta antzekoak erantzuten saiatuko da ikerketa hau. Lana puntu garrantzitsuenak 3 dira. Eskuaratean duzun lan honetan 3, 4 eta 5 zenbakiekin agertzen direnak. Hauetatik lehenengoan, hurbilpen teoriko bat egiten da Gizarte Ekonomia eta Euskararen Gizarte Erakundeak kontzeptuetara. Bien oinarriak deskribatzen dira, eta EGE-en kasuan zein diren zehazten da. Hurrengo puntuan proiektua egiteko jarraitutako pausoak esplikatzen dira, lana nola egin den azalduz. Eta aldi berean pauso bakoitza zergatik eman den eta bidean aurkitutako zailtasun eta oztopoak argituz. Azkenekoan berriz erakunde desberdinetan bildutako informaziotik ateratako emaitzak laburbiltzen dira. Emaitza hauek lau puntutan sailkatuta daude. Puntu hauek Gizarte Ekonomiaren ezaugarriak batzen dituzte, eta jarraian ageri diren hauek dira:

- Erakundearen irabazi asmo eta irabazien erabilera.
- Antolaketa demokratikoa eta funtzionamendu partehartzailea.
- Soldaten arteko aldea, edo ordainketa mailako elkartasuna.
- Interkooperazioa edo EGEen arteko elkarlana.

Lana bukatzeko, azken puntuan ikerketaren ondorio esanguratsuenak aipatzen dira.

2.- HELBURUAK

Izenburuak argi azaltzen duen bezala, lan honen helburua euskal kulturgintzako enpresa eta erakundeetan Gizarte Ekonomiaren printzipioak aztertzea izango litzateke. Eta printzipio hauek aztertu ondoren Gizarte Ekonomiaz hitz egin dezakegun edo ez ondorioztatzea.

Gizarte Ekonomia zertan datzan hurrengo puntuan esplikatzeko da luze eta zabal. Baina esaldi batean laburtzeko esan liteke pertsonen zerbitzura dagoen ekonomia dela, eta interes partikularren aurretik interes sozialak jartzen dituela. Laburbilduz, irabazi ekonomikoei baino garrantzi handiagoa eskaintzen diela inguruko gizartearentzako sortutako aberastasunei. Baina beti ere errentagarritasuna ahaztu gabe.

Beraz lan honen egitekoa hori da, lehenik eta behin Gizarte Ekonomiaren printzipioak zehaztu, Euskararen Gizarte Erakundeetan lan egiteko eta antolatze modua ezagutu eta bi errealitate hauek bateragarriak diren edo ez ikusi. Euskararen Gizarte Erakundeetan Gizarte Ekonomiarik ba al dago? Hau da ikerketa hau erantzuten saiatuko den galdera nagusia.

3.- KOKAPEN TEORIKOA

Zer da Gizarte Ekonomia?

Gizarte Ekonomia (GE) ia ezezaguna den kontzeptu bat da, baina kontuan hartu beharrekoa egitura ekonomikoan eta proiektu sozialean duen garrantziagatik (Levesque, 1989). Adituek pertsonen zerbitzura dagoen ekonomia bezala definitzen dute GERen kontzeptua. Ekonomia honetan lan egiten duten enpresen helburua errentagarritasun soziala da ekonomikoaren gainetik.

Gizarte Ekonomia espresioa garapen ekonomiko kolektiboa eta garapen lokalaren baitan eraturako enpresa kolektiboak eta kooperatiba berriak izendatzeko erabili izan oi dute zenbait ikertzaile eta antolatzaile kolektibok (Favreau, 1989; Fontan, 1990; Lamoureux, 1991).

Espresioak inperatibo ekonomiko eta sozialak bateratu nahi dituzten enpresak izendatzeko balio du. Enpresa hauek, kolektibitate lokalen dinamismoan oinarritzen dira. Eta beraz, herritarren eta zuzenean inplikaturako langileen partehartzean.

Erakunde hauek enpresa moduan egituratzen dira eta errentabilitaren erantzukizuna, lan produktibo bat burutu eta emaitzak eskuratzeaz arduratuko dira. Definizioz xede ekonomikoa dute, ala eta guztiz ere interes partikularra sozialaz ordezkatzeko da. Frogatuta dago Gizarte Ekonomia gai dela kalitatezko lanpostuak sortzeko eta ekonomia kapitalistak alde batera utzi dituen edo betetze ez dituen beharrek asetzeko.

Gizarte Ekonomiako parte diren erakundeetan ez dira onartzen logika enpresarialean nagusi diren baloreak, eta lehenago aipatu bezala irabazi kapitalistak irabazi sozialengatik ordezkatzeko dira. Azken hau gizarte guztiarentzako irabazi bezala ulertzen dute, eta ez soilik bazkideen arteko irabazien banaketa bezala.

Lehenago aipatu bezala, erantzukizun sozialek lehentasuna dute, honela, komunitate baten zati izan beharko dute, geografikoki, kulturalki, psikologikoki edo eta sozialki. Gizarte Ekonomiako erakundeek uko egin ezin dioten eraldaketa gauzatzeko erantzukizun bat dute.

Ondorengo puntuetan laburbildu daitezke Gizarte Ekonomiaren ohinarriak:

- Demokrazia eta partehartzea.
- Elkartasuna.
- Erantzukizuna, partehartzean eta bazkideen ekarpena eguneroko lanen kudeaketan.
- Errentagarritasun eta eraginkortasuna enpresan.
- Emaitzen banaketa eta salmenten sorrera modu orekatuan (zentzuzkoan).

Gizarte Ekonomia definitu eta deskribatzeko orduan desberdintasunak daude Europa eta Amerikaren artean. Ameriketako garrantzi handiagoa ematen diote GERen alderdi sozialari eta bere helburuei. Herritarrentzat eta ingurukoentzat aberastasuna sortzea eta ekonomia kapitalistak eskaintzen ez dituen beharrak asetzea besteak beste. European aldiz badirudi

enpresen egiturari gehiago begiratzen diotela enpresa bat GEkoa den edo ez zehazteko orduan.

Tradizionalki Gizarte Ekonomia ondorengo sozietate motetan sailkatu izan da:

- Kooperatibak
- Lan Sozietateak
- Mutualitateak
- Elkarte edo Fundazioak

Europar sailkapen honi jarraituz definitzen dute GE. Egitura juridiko hauetako bakoitzaren ezaugarriak jarraian agertzen diren hauek dira:

Kooperatibak

ACI-k (Asociación de cooperativas internacional) honako definizioa ematen du: "Asociación autónoma de personas que se han unido de forma voluntaria para satisfacer sus necesidades económicas, sociales y culturales en común mediante una empresa de propiedad conjunta, y de gestión democrática. Valores: autoayuda, autorresponsabilidad, democracia, igualdad, equidad, solidaridad."

Ekainaren 24ko Euskadiko Kooperatiben 4/1994 legeak arautzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) kooperatibak. Lege honen 1. artikulua zera dio: lehen helburutzat kideen ekonomi eta gizarte jarduerak sustatzea eta kideen partehartze zuzenaren bidez beren beharrezkoak betetzea duen enpresa garatzen duen elkarte da. Betiere kooperatiben zaletasunaren oinarriak bete eta bere inguruko gizarteari kasu egiten diolarik.

Lan Sozietateak

Sozietate Anonimo edo Erantzukizun Mugatuko Sozietate batean, kapitalaren %51a langileen esku badago Lan Sozietateez hizketan ariko gara. Beti ere langileak bertan lan egiten badute modu zuzen eta pertsonal batean, hau da, kontratu mugagabe baten bidez.

S.A. edo S.M. bat kiebra egoeran dagoenean, eta langileek bertako jabetza eskuratzen dutenean berau Lan Sozietate bilakatuko da.

Mutualitateak

Mutualitateak izaera pertsonalista eta ez kapitalista duten elkarteak dira. Beren ezaugarriak esanguratsuena irabazi asmorik ez izatea izan da betidanik.

Mutualitateek duten elkarte izaerak aukera ematen die Bazkide edo mutualistei erakundearen funtzionamendua erabakitzeko. Modu honetan bazkidea aseguratzaile eta aseguratu bihurtzen da aldi berean, honela autogestionatzeko ahalmena izanez.

Mutualitateen izaera pertsonalistak, mutualista guztiek eskubide berdinak izatea dakar berarekin, bazkide bakoitzak erakundeari egindako aportazioa eta honek dakartzan eskubide ekonomikoak baztertuz.

Mutualitateen eginbehar nagusia arriskuen aurreikuspena eta hauek ekiditea izango litzateke. Beste alde batetik, gizartearentzat onuragarri diren zenbait zeregin ere garatzen dituzte ala nola, osasunaren arloan, hirugarren adinekoekin eta bizi kalitatea hobetzeari dagokionean. Azken hau, ezaugarri bereizgarria izan da Mutualitateetan sortu zirenetik gaur egunerarte.

Elkarte eta Fundazioak

Elkarte izenaren baitan oso ezaugarri desberdineko erakundeak aurki ditzakegu. Elkarreak pertsonaz osatutako talde bezala definitzen dira. Pertsona hauek helburu berdin batek bilduko ditu eta norberaren zeregin eta ezagutzak helburu hori lortzera edo helburu hori bultzatzera bideratuko dira.

Kapitalik gabeko talde bat da. Beraien helburua altruista izan daiteke edo bertako kideen mesederako balioko duena. Garatutako aktibitate ekonomikotik eskuratutako produktuak ezingo dira inoiz elkarteko kideen artean banatu, hauek elkarrearen helburuak lortzeko erabiliko bai dira beti.

Fundazioak beren aldetik, irabazi asmorik gabeko entitateak dira. Eta interes orokor bat betetzera zuzendua dagoen ondare batekin kontaktzen dute.

Interes orokorreko helburuak ondorengoak izango dira: gizarte laguntzak, "civicos", hezkuntzazkoak, kulturalak, zientifikoak, kirol arlokoak, osasun arlokoak, garapenerako laguntzak ematea, ingurugiroaren defentsa, ikerkuntza eta giza ekonomiaren sustapena,...

Edozein pertsona fisikok edo juridikok era dezake fundazio bat.

Zenbait datu

Ez da erraza Gizarte Ekonomiak herrialde bateko ekonomian suposatzen duen zenbatekoa kalkulatzeko, ez bai du gainontzeko gizartearekiko modu isolatuan lan egiten. Alderantziz, gizartearen beharrekin bat eginda egotean, merkatu guztiarekin batera lan egiten du.

Ala ere, esan liteke 94/99 urteen artean lan postuen hazkuntza maila urteko 9,3 izan dela Lan Sozietateetan eta 7,56 Kooperatibetan, garai horretan pertsona aktibo kopurua 3,48 hasi zen bitartean. Bere pisu ekonomikoari dagokionean, Europako kontseilu Ekonomiko eta Sozialak egindako azterketa batek adierazten du, Europar Elkarteko ekonomia osoan %5 eta %6 arteko presentzia duela Gizarte Ekonomiak.

Azkeneko urteetan, GE-ren sektorea leku garrantzitsua artzen ari da Europa mailan. Europar batzordeak emandako azken datuen arabera, GE-ren sektoreak Europako BPG-ren eta

enpleguaren %6a ordezkatu luke. Baiezta daiteke Europako 270 mila biztanle Kooperatiba, Sozietate Laboral, Mutualitate edo Elkarteren bateko kide direla.

Esan behar da, Gizarte Ekonomia bazterrean utzitako edo kontuan hartu gabeko indar ekonomiko bat dela.

Gizarte Ekonomia, errealitate konplexua.

Gaian adituak direnak euren artean ados jartzen dira Gizarte Ekonomia definitzeko kontzeptu zaila dela esatean. Monzon eta Deforuny-rentzat (1992) Gizarte Ekonomiak edo Hirugarren Sektoreak bere baitan biltzen diru sektore publikoan eta pribatuan sartzen ez diren aktibitate ekonomikoak. Beste zenbait autorek bere osagaiegatik (Henri Desroche), funtzionatzeko eragatik (Claude Vienney), balore sozialegatik (Jacques Defourny), edo bere kideen dinamika eta formengatik definitzen dute Gizarte Ekonomia. Azken kasu honetan, tokian tokiko inizatibez hitz egingo genuke, kohesio soziala indartu eta lanpostuak sortzeaz arduratuko direnak (Jean-Louis Laville).

Gizarte Ekonomia ez da errealitate berri bat, kapitalismoaren agerpenak ondorioztatuko du bere jaiotza (D'amours, 1997; Levesque eta Vaillancout, 1997; Fauvreau, 1997). Nagusi den sistema ekonomikoak asetzen ez dituzten beharrak asetzen saiatuko dira hasierako ekimenak. Honela, XIX. mendeko lehen erdialdean laguntza mutualitateak, eta seguru mutualitateak bikoiztu egiten dira langileek gaixotasun, istripu edo heriotzaren aurrean bizi duten babesgabeziari irtenbidea aurkitu nahian. Aurrezki edo kreditu kooperatibak eta nekazaritza kooperatibak pixka bat geroago agertuko dira. Nekazaritza arloan kapital handiak sartzen direnean sortuko dira, nekazari txikien interesak defendatzeko. Etxebizitza, kontsumo, arrantza eta lan kooperatibak bikoiztu egin ziren 1930eko krisiaren ostean. 70eko hamarkadaren ondoren Gizarte Ekonomia berri baten sorrera biziko da, eskakizun berri batzuekin datozen gizarte mugimendu berrien isla. Gizarte Ekonomia berri honek haserako Gizarte Ekonomiaren balore eta printzipio berdinak ditu. Bere desberdintasuna hasetu nahi dituen beharretan eta berau bultzatzen duten taldeetan dago. Kasu honetan, aktore sozial berriak agertzen dira; herriko taldeak, sindikatuak, emakume taldeak, gazte taldeak, komunitate etniko eta indigenak, e.a.

Laburbilduz, forma bereziko enpresa edo instituzioetan oinarritutako garapenerako estrategia bezala uler daiteke Gizarte Ekonomia. Erakunde hauek funtzionamendu demokratikoez zuzentzen dira eta beren aktibitateengatik, bertako kideen ezaugarriengatik eta irabazien banaketagatik bereizten dira. Gizarte Ekonomiako enpresek kapitalaren menpe egon beharra zalantzan jartzen dute, aldi berean merkatura egokituz. Ekimen hauek beharrezko diren baina Estatuak edo kapitalismoak ahaztu dituen aktibitateez arduratzen dira. Forma juridikoari dagokionean Gizarte Ekonomiako enpresak kooperatiba, mutualitate edo irabazi asmorik gabeko elkarte izan daitezke.

Zer dira Euskararen Gizarte Erakundeak?

Euskararen Gizarte Erakundeak (EGE) euskara bultzatu eta bere normalizazioa lortzeko lanean ari diren erakundeak direla esan daiteke. Helburu honetan mota guztietako eta alor guztietan lanean ari diren erakundeak aurkitzen dira.

Euskal Herri osoan ehunka izango dira helburu berdinen atzetik dabilzan talde eta enpresak. Baina lan honetan, EGE bezala Kontseiluko bazkide diren erakundeak soilik hartuko ditugu.

Kontseilua, euskarak garapen osoa izatea helburu duten gizarte erakunde ugariaren bilgunea da. Erakundeok osatera, eragimen eta antolaketa anitzekoak dira, eta Euskal Herriko milaka herritar ordezkatzan dituzte. Lehenago esan bezala, erakunde hauek izango dira lan honetan Euskararen Gizarte Erakunde bezala definitzen direnak.

Euskararen normalizazio prozesua areagotzea da Kontseiluaren eginkizuna. Eta beraz, baita bertako bazkide diren erakundeena era. Horretarako bi jardunbide nagusi lantzen ditu: euskalgintzako erakundeen artean kohesioa bultzatzea eta indarrak artikulatzea, eta gizarte eragileak, indar ekonomikoak eta alderdi politikoak hizkuntz normalizazio proiektuetan inplikaraztea.

Kontseiluak 44 erakunde hartzen ditu bere baitan. Horietako zenbait, talde askoren bilgune direnak. Zenbaki batzuk aipatzeko:

- 8.000 langiletik gora.
- 150.000 bazkide baino gehiago.
- 50.000 milioi pezetako / 2.000 milioi liberako / 300 milioi euroko / 295'55 milioi dolarreko fakturazioa urtean.
- Ehunka mila herritarrengan eragin zuzena.

Hasieran aipatu bezala Euskararen Gizarte Erakundeek helburu berdina dute, baina lan esparru desberdinetan jarduten dute. Gizarteko alor guztietan ari dira lanean, eta bati bat euskararen inguruan hutsuneak dauden alorretan; enpresetan, kulturgintzan, kalean,... Euskaraz bizi eta aritzeko aukera eskainiz beste milaka euskaldunoi.

Guztiak komunean duten beste helburu bat euskara geografikoki eta demografikoki hedatzea da. Honetaz gain, euskararen berreskurapena eta finkapena ziurtatu nahi dituzte.

Gaur egun Kontseiluko bazkide diren Euskararen Gizarte Erakundeak 46 dira. Azterketa errazago egiteko Erakundeak 10 bloketan sailkatzea erabaki genuen; euskaltegiak, zuzenbidea, antzerki taldeak, komunikabideak, euskara lan munduan sustatzeko enpresak, guraso elkarteak, herri mugimenduak, heziketa, kultura eta argitaletxeak.

Lan honetan aipatutako 46 Euskararen Gizarte Erakunde horietatik batzuen datuak bakarrik jasotzen dira. Lan honetan ageri den informazioa ondorengo taldeei dagokiena da:

Euskaltegiak

- **AEK**
Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundea. 100 euskaltegi baino gehiago biltzen dituen helduen euskalduntze eta alfabetatzerako koordinakundea.
- **IKA**
Ikas eta Ari.
Helduen euskalduntze eta alfabetatzerako zentroen elkarte. Bere helburua hain zuzen horixe da, Euskal Herria euskalduntzen eta alfabetatzen laguntzea.
- **Ilazki.**
Ilazki euskaltegiaren helburua, euskara irakastea eta euskal kultura zabaltzea da. Kaletik datorren jendeari eta enpresei eskaintzen dizkiete beren zerbitzuak.
- **Maizpide.**
Euskaltegi eta barnetegia. Euskara ikasi nahi duten helduekin lan egiten dute, bai barnetegian eta bai kanpo ikastaroetan.
- **Ulibarri.**
Ulibarri euskaltegiaren helburua euskal hizkuntza eta kultura hedatzea da..
- **Urrats.**
Urrats ere euskaltegia da, eta bere helburua helduen euskalduntze alfabetatzea.
- **Hitzez.**
Hitzez Donostiako Gros auzoan kokatutako euskaltegia da, eta beren helburua lan egiten duten inguruan jendea euskalduntzea da.

Komunikabideak

- **Hik hasi**
Euskal heziketarako aldizkaria. Bere helburua irakaskuntza euskaldunean foro izatea da, debate pixka bat sortzea eta irakaskuntza munduko pertsonen bilgune izatea.
- **Jakin**
Kultur gaiei buruzko aldizkaria da. Helburu bezala euskalgintza eta kulturgintza bultzatu eta indartzea ditu.
- **Karmel**
Euskal Herriko Karmeldarren aldizkaria da, eta beren helburua honako hau da: "Euskara bultzatzea eta Euskal Herriko kristau euskaldunei, bizitzari buruzko ikuspuntu erlijioso eta sozial zabala eskaintzea"

- **Topagunea**
Euskal Elkarte eta Herri Aldizkarien Topagunea. 63 elkarte osatutako Federazio bat da; 33 herri aldizkari eta 30 herri erakunde biltzen ditu. Elkarguneak sortzea eta elkarteei zerbitzuak eskaintzea da beraien lana.

Euskara lan munduan sustatzeko enpresak

- **Elhuyar**
Euskara zientziaren arloan eta lan munduan sustatzeko elkarteak.
Elhuyar-ek 30 urte daramatza euskaraz lan egin ahal izateko tresna aurreratuak eskaintzen. Estatutuetan honela jasoa duten beren helburua: " Zientziaren eta teknologiaren esparruan eta euskararen garapen osoaren bidean jarduerak sustatu eta gauzatzea euskal gizarte eleanitzaren testuinguruan".
- **Emun**
Enpresetan euskararen normalizaziorako planak garatzen dituen erakundea da, bere zeregina lana euskalduntzea da.
- **Euskalan**
Euskara lan munduan sustatzeko elkarteak.
- **Euskaraz bizitzeko hitzarmena**
Euskara lan munduan sustatzeko akordiora bildutakoen elkarteak.
- **OEE**
Osasuna Euskalduntzeko Erakundea.

Guraso elkarteak

- **Bige**
Bizkaiko Ikasleen Gurasoen Elkarteak. Hau da, Bizkaiko ikastetxe publikoetako guraso elkarteak ordezkatzeko dituen federazioak.

Herri mugimenduak

- **Euskal konfederazioa**
Iparraldean euskararen normalizazioan lan egiten duten 70 elkarteren bilgunea. Konfederazioa, Kontseiluak ego Euskal Herri mailan egiten duena iparraldean egiteaz arduratzen da. Euskalgintzaren eledunak dira iparraldean.

Kultura

- **Euskal Herriko Bertsozaleen Elkarteak**

Bertsolarien eta bertsozaleen elkarteak. Elkartearen helburua bertsozaletasunaren etorkizuna bermatzea da.

- **Gerediaga**

Durungaldean euskal kultura eta ohiturak sustatzeko erakundea. Honez gain ondare historiko artistikoa zaintzeaz arduratzen dira.

Argitaletxeak

- **Euskaigintza Elkarlanean Fundazioa**

Euskararen eta euskal kulturaren sustapena eta garapena modu eraginkorrean bultzatzea eta lantzea helburu duen erakundea. Fundazioa osatzen duten enpresek hiru esparru betetzen dituzte:


- 1.- Ekoizpena.
- 2.- Banaketa zerbitzua.
- 3.- Zuzeneko salmenta.

- **Euskal Editoreen Elkarteak**

Euskaraz argitaratzen duten argitaletxeek osatzen dute elkarteak eta euskarazko argitalpenak sustatzea du helburu. Egun 20 argitaletxe dira bertako kide.

Aztertutako Erakunde hauetan mota guztietako egiturak aurki ditzakegu. Gehienak Kultur Elkarte moduan eratuta badaude ere Kooperatibak, Fundazioak eta zenbait Elkarte Mugatu ere badaude tartean.

Gauzak zehazten hasiz, aztertutako erakundeen artean 5 Kooperatiba, 2 Fundazio, 3 Sozietate Mugatu, 2 Federazio eta Koordinadora bat daude. Gainerako guztiak elkarte bezala eratuta daude, Elkarte kulturalak, Euskara Elkarteak,... guztiak ezaugarri amankomun batekin: irabazi asmorik gabekoak izatea. Jarraian agertzen den grafiko honek aurkitutako egitura juridiko bakoitzaren proportzioak erakusten ditu.



Erakunde hauen tamaina ekonomikoa zeharo desberdina da, abaniko zabal bat eskaintzen dute. Urtean 6-7 mila milioiko fakturazioa duen Fundazio batetik urtean

Humanitateak-enpresa, KAP 2001

Gizarte Ekonomiaren printzipioak Euskararen Gizarte Erakundeetan

HUMANITATE ETA
HEZKUNTZA ZIENTZIEN
FAKULTATEA




1.200.000 pta-ko aurrekontuarekin pasatzen duen elkarte batetaraino. Erakunde bakoitzaren beharrak eta lan esparrua zeharo desberdina da, eta bakoitzaren urteko aurrekontuak horren isla dira.

Langile kopuruari dagokionean ere desberdintasun nabarmenak daude erakundeen artean, 300 langile dituen batetik orduka kontratatutako idazkari bat soilik duten erakundeetaraino. Hurrengo orrian ageri diren grafikoek erakunde bakoitzaren aurrekontua eta langile kopurua erakusten dizkigute. Argitu behar dut aurrekontuen grafikoan Euskaingintza Elkarlanean Fundazioaren datuak falta direla. Fundazio honek urtean 700 milioitako aurrekontua du, eta grafian sartu ezkerro beste erakundeen datuak ezin ziren ongi ikusi.

Humanitateak-entresa, KAP 2001


Gizarte Ekonomiaren printzipioak Euskararen Gizarte Erakundeetan



Humanitateak-enpresa, KAP 2001

Gizarte Ekonomiaren printzipioak Euskararen Gizarte Erakundeetan

HUMANITATE ETA
HEZKUNTZA ZIENTZIEEN
FAKULTATEA



4.- METODOLOGIA

Laugarren atal honetan lana egiteko erabilitako metodologia azaltzen saiatuko nahiz. Nondik abiatu nintzen eta nora iritsi naizen. Eta bide honetan zein pausu eta zergatik eman ditudan.

Hurbilpen teorikoa

Proiektua zehaztu zenean galderak eta dudak nagusi ziren nire buruan. Egokitutako gaia zeharo ezezaguna zitzaidan. Euskararen Gizarte Erakundeak zertxobait ezagutzen nituen, baina Gizarte Ekonomia terminoa lehenengo aldia zen entzuten nuela.

Beraz, argi zegoen zein zen lehenengo egin beharra. Gizarte Ekonomia zer zen ezagutu, bere oinarriak, helburuak, non lan egiten duen,.... Laburbilduz zertan datzan ezagutu.

Hurbilpen teorikoa gauzatzeko erabilitako tresna nagusia interneta izan da. Hasieran liburuetara jo nuen, baina ez nuen gauza haundirik aurkitu. Ondoren interneten saltseatzen hasi nintzen eta sarean aurkitu dut GEr buruzko informazio gehiena eta zabalena. Euskararen Gizarte Erakundeek buruzko lehenengo informazioa ere saretik atera nuen, zeintzuk diren eta beren helbideak. Ondoren beraiekin harremanetan jartzeko ezinbesteko tresna izan ditudanak.

Internetetik ateratako informazio guztia asimilatu ondoren gaiari buruz zertxobait gehiago nekiela esan behar dut. Gizarte Ekonomiari buruzko definizio edo azalpen bat emateko gai behintzat banintzen.

Unibertsoa aukeratu

Hurbilpen teorikoa burutu ostean, eta gaiaren inguruan zertxobait nekienean, bigarren arazo batekin topo egin nuen. Ikerketa honetan Euskararen Gizarte Erakunde bezala definituko genituenak nortzuk edo zeintzuk izango ziren zehaztea.

Euskal Herrian milaka dira gure hizkuntzaren inguruan lanean aritzen diren talde, erakunde eta enpresak. Eta ezinezkoa zen maila honetako lan batetan guztiak ezagutzea eta aztertzea.

Euskararen Gizarte Erakundeak aipatzean Kontseilua etortzen zitzaidan burura. Berau da euskararen inguruan lan egiten duten elkarte gehien batzen dituen erakundea, eta nire lanaren abiapuntua. Kontseiluak egun 46 bazkide ditu. Bazkide hauen artean mota guztietako erakundeak aurkitzen dira; herri mailako taldeak, enpresak, fundazioak,... Talde zabal eta anitza zenez berau hartu genuen proiektuaren unibertso bezala. Aztertuko genituen Euskararen Gizarte Erakundeak Kontseiluko bazkideak izango ziren.

Lagina aukeratu

Unibertsoa aukeratuta zegoen, baina ala era handiegia zen sei hilabetetan eta eskura nituen baliabideekin azterketa sakon bat egiteko. Beraz, tutorearen laguntzaz lagina aukeratzeari ekin genion.

Kontseiluak dituen 46 bazkideetatik euskararen munduan esanguratsuenak edo pisu gehien izan zezaketenak aukeratu genituen. Kontseiluko bazkideen zerrenda hartu eta egokienak izan zitezkeenak bereizi genituen lanean hasteko. Honela, aukeratutako erakundeak ondorengoak izan ziren:

EUSKALTEGIAK

- AEK
- IKA
- Ilazki.

KOMUNIKABIDEAK

- Hik hasi
- Topagunea
- Argia
- Euskaldunon Egunkaria

EUSKERA LAN MUNDUAN SUSTATZEKO ENPRESAK

- Elhuyar
- Emun

KULTURA

- Euskal Herriko Bertsozaleen Elkartea
- Gerediaga

ARGITALETXEAK

- Elkarlanean- Zabaltzen
- Gaiak

HEZKUNTZA ARLOKOAK

- Ikastolen Elkartea
- UEU

Proiektua lagin honetan oinarrituko zen bereziki, baina unibertsoa osatzen zuten gainontzeko erakundeak ahaztu gabe. Ideia hau, ondorengo puntuan, proiektuaren pausoetan azalduko dut argiago.

Proiektuaren pausoak

Lehen aipatu bezala, euskararen Gizarte Erakundeetatik lagin bat aukeratu genuen, informaziorik baliagarriena eskaini zezaketenak. Baina aldi berean unibertsoa osatzen zuten ahalik eta erakunde gehienaren informazioa eskuratu nahi genuen. Eta beraz, erabaki genuena hau izan zen; lagina osatzen zuten erakundeei elkarrizketa zabal bat egingo zitzaientzen, proiekturako beharrezkoa izango zen informazioa jasotzeko. Gainontzeko elkarteei berriz informazio eskaera bat egingo zitzaientzen, baina hau bestea baino xumeagoa izango zen. Oinarrituko informazioa eskatuko zitzaientzen, beren helburua, tamaina ekonomikoa, ...

Lehenik eta behin Kontseilura jo nuen informazio eske, bertako bazkide ziren erakundeei buruzko informazioa eskatu nuen. Hemen esan zidaten honena beraiekin zuzenean harremanetan jartzea izango zela, modu honetan informazio gehiago eta hobeagoa eskuratuko nuela eta.

Beraz, hori izan zen jarraitutako hurrengo pausoa. Proiektuan inplikaturako guztiei gutun bat bidali nien; e-mailez, korreo konbentzionalaz edo faxez. Gutun horretan proiektuaren aurkezpena eta helburuen berri eman, eta aldi berean informazio eskaera egiten nien.

Erakunde batzuk segituan erantzun zidaten, baina beste batzuekin, gehienekin ez nuen horrelako arrakastarik izan. Zuzenean telefonoz harremanetan jartzen hasi nintzen. Eta elkarrizketa burutu beharreko erakundeekin hitzorduak lotzen.

Elkarrizketak burutu baino lehenago, proiektuko tutorearekin elkarrizketa oinarrituko zen galdetegia prestatu genuen. Honela elkarrizketak gaituk desbideratu ez zitezten, eta erakunde guztietan informazio berdina jaso nezan. Galdetegi hau anexoetan aurkitzen da. Arrazoi desberdinegatik ezinezkoa izan zitzaidan laginean aukeratutako guztiei elkarrizketa egitea. Konkretatuz esan, lagineko 10 erakunderi lotu nuela elkarrizketa egitea. Hauetako 9ri zuzenean, beraien bulegoetara joanez eta aurrez aurre hitz eginez. Beste bati berriz internet bidezko elkarrizketa burutu nion. Galdetegia korreo elektronikoz bidaliz eta ondoren erantzunak bide beretik jasoz.

Lehenago esan bezala unibertsoa osatzen duten gainontzeko erakundeei ere bidali nien informazio eskaera eginez gutun bat. Eskatutako informazioa ondorengo izan zen:

- Erakundearen helburua.
- Erakundearen egitura mota. Nola eratuta dagoen.
- Tamaina ekonomikoa. Urteko aurrekontua.
- Erakundearen tamaina pertsona eta baliabide aldetik.

Bide honetatik 12 erakunderen informazioa eskuratu ahal izan nuen.

Hurrengo pausoa informazio guztia idatziz jasotzea izan zen. Hau da, burututako elkarrizketa guztiak transkribatzea eta ordenatzea. Informazio guztia idatziz eskuratu ondoren hurrengo pausoa hasi zen, datuen prozesamendua.

Datuen prozesamendua

Erakundeei buruzko datu guztiak 4 ataletan banatuta nituen. Atal hauek proiektuaren hasieran zehaztutakoak ziren, eta azterketa burutzeko oinarri izango zirenak; Erakundearen irabazi asmoa, antolaketa, soldatak eta interkooperazioa.

Erakunde bakoitzetik jasotako informazio guztia lau bloke hauetan kokatu nuen eta ondoren burutu beharreko lana jakina zen, guztia irakurri, asimilatu eta jasotako errealitatea esplikatu, bukaeran ondorioak ateratzeaz ahaztu gabe.

Esan daiteke lanik zailena eta denbora gehiena eman didana informazioa eskuratzea izan dela. Horoar erakunde guztiei eskertu behar diet beraien esku zabaltasuna, eskatutako informazioa inongo mugarik gabe emateagatik eta lapurtu nizkien lan orduengatik. Normalean arazorik ez bai didate jarri, hain delikatuak diren datuak emateko uanean.

Zenbait erakundetari argi eta garbi esan didate eskatutako datu batzuk ezin zizkidatela eman. Baina kasu guztietan arrazoizko argudioak eman dizkirate honetarako, esperientzia txarrak edo eta justiziarekin irekita dituzten dilijentziak kasu.

Baliabide gutxirekin lana egiteak ere mugatu egin nauela aitortu behar dut. Autorik ez izateak eta EGE Euskal Herri osoan sakabanaturik egoteak ez dituzte lanak erraztu. Garraio publikoen ordutegiak baldintzatu dituzte elkarrizketak burutzeko egun eta orduak. Bide batez, geografia eta hiriburuak pixka bat gehiago ezagutzeko aukera izan dut.

5.-EMAITZAK

Bosgarren puntu honetan erakundeetan eskuratutako informazio guztia Gizarte Ekonomiaren printzipioetatik aztertzen ahaleginduko naiz. Hasieran aipatu bezala 4 puntutan banatuko da azterketa hau. Honela landuko diren gaiak ondorengoak izango dira:

- Erakundeen irabazi asmoa eta hauen erabilera
- Antolaketa demokratikoa eta funtzionamendu partehartzailea
- Soldaten arteko elkartasuna
- Interkooperazioa

Puntu bakoitzean lehenik eta behin informazioa sailka aurkeztua dago. Hau da, euskaltegiak, kultura,... atalka agertzen da lehendabizi informazioa. Ondoren puntu guztietan laburpen bat egiten da atal bakoitzeko daturik esanguratsuenekin.

Erakundeen irabazi asmoa eta hauen erabilera

Puntu honetan lehendabizi erakundearen egiturari erreparatuko diogu. Honek bere irabazi asmoen informazio asko ematen bai du. Irabazi asmoa argitu ostean erakunde bakoitzak etekin horiekin zer egiten duen jakingo dugu. Poltsikoratu egiten dituzten edo helburu zehaztutara bideratzen dituzten.

Euskaltegiak

Aztertutako 7 euskaltegiren artean 3 kooperatiba bezala eratuta daude (Ilazki, Maizpide eta Urrats), 1 Sozietate Mugatua da (Hitzez), beste bat Koordinadora (IKA) eta beste bat Elkarkea (AEK). Azkena aipatutako Koordinadora eta Elkarkea euskaltegi sareak dira, eta beraz, beren baitan erakunde gehiago artzen dituzte. Erakunde hauek bakoitzak bere izaera eta egitura izango ditu. Koordinadoraren kasuan bere baitako euskaltegi gehienak kultur elkarte bezala eratuta daude baina tartean badaude pare bat fundazio ere. Elkarkearen kasuan berriz bere baitako euskaltegi guztiak elkarkeak dira.

Euskaltegiei dagokienean aipagarria da, kasu honetan beren egiturak ez duela hainbeste baldintzatuko irabazi asmoa. Gizarteko hutsune bat betetzeko daude, behar bat asetzen ari dira. AEK eta IKA-koek behintzat argi dute zerbitzu publiko bat eskaintzen dutela eta bokazio publikoa dutela. Bide honetatik, AEK-k herri onurako izendapena eskuratzeko prozesua abian jartzeko erabakia hatu zuen 1999. urtean. IKA-koak ere ildo berean adierazten dira, dohain ikastearen aldekoak dira, beraiek adierazi bezala "*tristeia da Nafarroan heldu batek euskara ikasteagatik ordaindu behar izatea*".

Helburuak lortzeko, edozein instituzio, erakunde, entitate edo partikularrekin hitzarmenak nahiz bestelako lankidetzak sistemak finkatzen dituzte. Bide guztiak saiatzeko dituzte ikasleen matrikula zenbatekoa igo aurretik. Orokorrean hiru bidetatik eskuratzen dituzte euskaltegiek beren diru sarrerak:

- Ikasleen matrikulak

- Institutuzio e.a. jasotako dirulaguntzak
- Bestelako diru sarrerak; txosnak, festak, korrika, aekanpada, (azken hauek AEKren kasuan)

Irabaziei buruz galdetzean euskaltegi gehienetan barre egin dute. AEK-koak defizitekin dabilta azkeneko urteetan. 27 milioitako defizitarekin itxi zuten 1999ko balantzea. Honen arrazoa dirulaguntzetan dago, 727 milioitako dirulaguntza espero zuten HABE-tik, baina azkenean zenbateko hori 702 milioitan gelditu zen. Hau dela eta berbanaketen sistema aldatu behar izan zuten. Teoriaz, Euskal Herri osoan egiten diren irabaziak herrialdeen artean banatzen dira. Baina azken bi urteetan galerak izan ostean, tesoreria arazoak dituzte. 1999an 125 milioitako mailegu zubia eskatu behar izan zuten, dirulaguntzak jasotzean ordaintzea espero dutena. Egoera honetan Euskal Herrian batutako dirua ez berbanatzea erabaki zuten, modu honetan tesoreria apur bat berreskuratzeko aukera izango luketelako.

IKA-koek beren aldetik oso argi dute zer egin irabaziekin, guztia gastatu, ba omen dago eta non gastatua. Irabaziei buruz hitz egitean beren koordinadoraren antolaketa aipatzen dute. *"IKA koordinadora da, kontzeptu hau gabe ez dago ulertzerik gure funtzionamendua"*. Elkarrekin aurrera ateratzen dituzten proiektuetarako kaxa komun bat dute, publizitatea, barnetegia, ... ordaintzeko edo euskaltegi defizitarioak edo herri txikietako euskaltegiei laguntzeko. Zentro bakoitzak kuota bat jartzen du urtean kaxa horretan. Hortik aurrera, euskaltegi guztiak autonomoak dira, zentro batek irabaziak baditu berak ikusiko du diru hori non gastatu, baina argi dute beti berrinbertitu egingo dutela. Baliabide faltagatik alde batera utzitako proiektu pila bat dituztela komentatzen dute. Beraz, dirua izanez gero badago zer egin; didaktikan landu, materiala egin, lan kondizioak hobetu,...

Gainontzeko euskaltegietan irabazien zati bat bazkideen artean banatzen da, bai Kooperatibetan eta baita Sozietate Mugatuetan ere. Eta beste zati bat zentroan bertan berrinbertitzen dute, materialean, irakasle gehiago kontratatuz, ... Datu batzuk aipatzearren. Ilazki-ko kasuan irabazien erdia bazkideen artean banatzen da, eta beste erdia euskaltegian berrinbertitzen da. Zuzendariak komentatu zuenez, irakasleen lan baldintzek bultzatzen dute honetara. Ez dute baldintzarik honenetan lan egiten, eta urte bukaeran irabazien % bat jaso ezker hori gehiago, zuzendariak argitzen du ez dela beste munduko ezer izaten. Baldintza hobegotan lan egingo balute, irabaziak osorik berrinbertituko liratekeela dio, ez zela ezer bazkideen artean banatuko.

Euskaltegien kasuan bereziki aipagarria iruditzen zait, instituzioekiko duten dependentzia. Argi dute onura publikoko erakundeak direla, eta batek baino gehiagok komentatu dute Udal Euskaltegiek baino material hobegoarekin eta jende kualifikatugoarekin lan egiten dutela. Baina ala ere dirulaguntza gutxiago kobratzen dituzte. Ilazkikoek komentatu bezala, Institutuzioek gero eta betebeharrak gehiago eskatzen dizkiete dirulaguntzak jaso ahal izateko, baina gero dirulaguntzak ez datoz proportzio berdinean.

EAEtik jasotzen dituzten dirulaguntza guztiak HABE-tik bideratzen dira. Ulibarri, Urrats eta Hitez-ek urtean 22 milioi jasotzen dituzte bide honetatik, Ilazki eta Maizpidek beren diru-sarreraren erdia. AEK-k Jaurlaritzarekin hitzarmena sinatu zuen iaz, eta 765 milioi jasotzea espero zuten. IKA-koek ere hitzarmena sinatuta dute Jaurlaritzarekin, baina zenbatekoaren

datu zehatzik ez dut. Nafarroako Gobernutik 113 milioi jasotzen dituzte (125 pta. ikasle orduko) eta EAetik ere antzeko zerbaite jasoko dutela kalkulatu daiteke.

Azken urteetan euskaltegiek Jaurlaritzatik jasotzen dituzte dirulaguntzak hasiz joan dira, urteko batazbeste puntu bat igo da finantziarioa 1995az geroztik. Ez da gauza bera gertatzen Nafarroan, hemen dirulaguntzak murriztuz doaz. Honen ondorioak pairatzen dituzten euskaltegiak IKA eta AEK dira, eta argi azaltzen dituzte zein diren Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikaren ezaugarri nagusiak: izaera ukatzailea, baztertua eta oztopatzailea. Aurrerantzean, arlo guztietan, euskararen aurkako erasoak eta murrizketa garrantzitsuak izango dituztela aurreikusten dute. Ala ere argi dute zein den zabaldu beharreko ideia nagusia, euskara guztion ondarea eta euskara ikastea guztion eskubidea dela hain zuzen ere. Honetarako, dohaintasuna bermatzeko beka sistema mailakatua eta euskaltegiak finantzatzeko hezkuntzaren antzeko kontzertazio eredu bat proposatzen dituzte. Guzti honetarako beharrezkotzat jotzen dute instituzioekiko harremana indartzea, Nafarroako Gobernuaren Euskara Zerbitzuarekin eta Hezkuntza Sailarekin elkarrizketa bide iraunkor batzuk zabaltzea. Honek ekarriko lukeen dependentzia guztiarekin.

Euskara lan munduan sustatzeko enpresak

Sail honetan aztertutako erakunde guztiek beren irabaziak enpresan bertan berrinbertitzen dituztela komentatu dute.

Euskalan eta Osasuna Euskalduntzeko erakundea irabazi asmorik gabeko elkarte bezala eratuta daude. Elhuyar ere onura publikoko elkarte bezala eratuta egon da orain dela gutxiarte. Baina orain Fundazio bihurtzeko tramiteetan dabilta.

Fundazio honen baitan enpresak sortzeko asmoa dute. Enpresa hauek Sozietate Mugatu egitura izango omen dute. Baina guzti hau oraindik gauzatu gabe dago, urrengo urteetarako dituzte asmoak dira.

Elkarte egitura hauekin dituzten irabazi guztiak erakundeetan bertan berrinbertitzen dituzte guztiek. Lan postuak sortu, proiektu berriak gauzatu, eskaintzen dituzten zerbitzuak hobetu,...

Emun kooperatiba bezala eratuta dago, baina hauek ere irabaziak berrinbertitu edo gorde egiten dituzte. Orain arte etekinak ez dituztela banatu esaten dute. Irabazien portzentaia bat fondo desberdinetara bideratzen dute. Kooperatiben legeak zehazten du, zein kuantitate eta nora bideratuak izan behar duten. Gainontzekoa enpresan bertan inbertitzen dute hauek ere. Orain erronka berri bat dute, lokal propioa eskuratzea, orain arte alokatutako lokal batean bai daude.

Komunikabideak

Komunikabideen atalean aztertutako erakundeetatik bi Sozietate Mugatuak dira (Hik hasi eta Jakin), bat Federazioa (Topagunea) eta beste bat irabazi asmorik gabeko aldizkaria (Karmel).

Azken hau Euskal Herriko Karmeldarren aldizkaria, forma juridiko jakinik gabeko erakundea da, eta beraiek irabazi asmorik gabeko aldizkari bezala definitzen dute. Iazko balantzea defizitekin amaitu zuten. Horrelako kasuetan, zorren zama Karmeldarren probintziak jasotzen du. Irabaziak egongo balira, Karmeldarren probintziak jasoko lituzke hauek ere.

Jakin Sozietate Mugatua da, eta teoriak irabazi asmoa izan beharko luke. Baina hauek ere joan zen urtea defizitekin amaitu zuten. 50.000 pta.ko galerak izan zituzten, beraz, aurten ez dute inbertsio handiegirik egiteko aukerarik izango.

Hik Hasikoek diote oraintxe hasi direla irabaziak izaten. Eta duten guztia berriro enpresan inbertitzen dutela; enpleguak sortzeko, lokala erosteko, ekipoa lortzeko,... Irabaziak ez dituzte bazkideen artean banatzen.

Topagunea irabazi asmorik gabeko federazioa da, eta urtea zeroan amaitzen badute gustura egoten dira. Ala ere, irabazirik balego, printzipioz proiektu berrietan berrinbertitzen dituztela azaldu dute.

Guraso Elkartek

Bige erakundea Bizkaiko ikastetxe publikoetako guraso elkarteak ordezkatzeko dituen federazioa da. Irabazi asmorik gabeko elkarte bezala eratuta dago. Bere diru sarrera gehienak instituzioetatik jasotako dirulaguntzetatik datoz.

Urte amaieran dirurik geratzen bazaie edo irabaziak izan badituzte federazioan bertan berrinbertitzen dituzte. Eskaintzen dituzten zerbitzuak hobetzeko edo zerbitzu eskaintza zabaltzeko. Bigek hainbat zerbitzu eskaintzen dizkie Federatutako guraso elkartei:

- Aholkularitza (aseguruak, lege-aholkularitza, antolakuntza zein pedagogiari buruzko informazioa,...)
- Guraso eskolak.
- Ordezkaritza Eusko Jaurlaritzarekiko zein beste hainbat elkarteekiko (Kontseilua, Gunea, Bilgunea, Konfederazioa,...).
- Aldizkari bat argitaratzen dute.
- Iparraldeko barnetegi batera joateko eskaintza egiten diete ikasleei.
- Euskal Eskola Publikoaren jaia antolatzen dute.
- ...

Herri mugimenduak

Konfederazioa lukuru asmorik gabeko kultur elkarte bezala eratuta dago, Estatu Frantseseko 1901 legearen arabera. Irabazirik ez duela esan daiteke. Eta diru sarrera guztiak elkartearen lan ildoak gauzatzera bideratzen ditu. Hauek dira Konfederazioaren lan ildoak:

- Normalizazio plana Ipar Euskal herriko etxeetan (udaletan).
- Bai euskarari Akordioa. Iparraldeko harreman eta lan guztien hardura dute.
- Koordinazioa.

Kultura

Kultura arloan aztertutako bi erakundeak; Gerediaga eta Bertsozale Elkarteak, Elkarte bezala eratuta daude. Beno, argitu behar da Euskal Herriko Bertsozale Elkartekoei bi egitura desberdintzen dituztela beren baitan. Bata Herrialdeetako Bertsozale Elkartek dira, eta bestea Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak. Herrialdeetako taldeak juridikoki elkarte moduan eratuta daude, eta Euskal herri guztian 5 dira; Nafarroakoa, Arabakoa, Bizkaikoa, Gipuzkoakoa eta Iparraldekoa. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak berriz borondatez osatutako elkarte bat da. Juridikoki ez da posible Euskal lurraldetasuna ordezkatuko duen erakunde bat sortzea. Hegoaldeko denak batu daitezke Madrilgo legislaturaren bitartez, baina Iparraldea ez dago lotzerik. Gelditzen den bide bakarra borondatezko atxikimenduan oinarrituta funtzionatuko duen elkarte bat sortzea da. Hau da Euskal herriko bertsozale elkarteak, juridiko Donostian du bere egoitza eta nortasun juridikoa, baina funtzionamendua Euskal Herri maila osora planifikatzen du. Koordinazio lan guztia egiteaz arduratzen da.

Elkarte izatean, ez dute inolako irabazirik. Bertsozale Elkartekoei adierazi bezala gainera, ezin dute irabazirik izan. Bertan inplikaturako jende askoren aportazio garrantzitsu bat borondatezkoa da, eta irabaziak badaude zerbaitek gaizki funtzionatzen duen seinale izango omen litzateke.

Duten diru guztia gastatu egiten dutela diote bi elkarteetakoek. Gainera biek dokumentategi zentroak sortzen ari dira, eta horiek diru pila bat txuputzen dutela komentatzen dute, eta eman ezer ere ez.

Argitaletxeak

Argitaletxeen baitan bi erakunderen informazioa eskuratu ahal izan dut; Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa eta Euskal Editoreen Elkarteak.

Euskal Editoreen Elkarteak elkarte gremial bat da. Bertako bazkideak editoreak dira, eta gaur egun 20 argitaletxe daude asoziatuta. Arlo guztietako argitaletxeak biltzen ditu; literatura, testu liburuak, testu osagarriak, entziklopediak,... Guztiek komunean duten gauza bakarra euskaraz argitaratzea da. Elkartearen egitekoa hain zuzen euskaraz argitaratzen dutenen problematika aztertzea eta inguru horretan lan egitea da.

Urtean 8 milioitako aurrekontu bat du, eta berau elkartearen funtzionamendurako erabiltzen da. Irabazirik ez dutela argitzen dute. Urte bukaeran zerbait gelditzen bazaie, sobratutako diruapurra bulegoaren mantenuetarako erabiltzen dute.

Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa beste tamaina batetako erakundea da. Gaur egun 120 enpresa dira bertako partaide. Euskal Herrian euskararen edo euskal kulturaren inguruan dagoen enpresarik handiena dela baieztatzen dute.

Enpresa bakoitza autonomoa da, bakoitzak bere egitura juridikoa dauka. Honela Fundazioaren barruan Sozietate Anonimoak eta Sozietate Mugatuak aurkitzen dira. Bere

egitura eta gaur eguneko funtzionamendua ulertzeko ezinbestekoa da atzera joatea eta historia pixka bat egitea.

Guztia orain dela 30 urte hasi zen. 1972 justu, Iparraldean Elkar, Euskal Liburu eta Kantuen Argitalaria sortu zenean. Ordutik gaur egunerarte ez dira gelditu, eta pixkanaka-pixkanaka enpresa gehiago sortzen joan dira Euskal Herri osoan. Beren helburua argia zen eta gaur egun berdin jarraitzen du, euskararen eta euskal kulturaren sustapena eta garapena modu eraginkorrenean bultzatzea eta lantzea.

Erakundearen ibilbide guztian zehar zazpi pertsona agertzen dira buru. Tartean Joseba Jaka, egun gure artetik joana, baina oraindik bere filosofiak eta ideiak fundazioaren oinarri izaten jarraitzen dute. Pertsona hauek argi zuten zein zen jarraitu beharreko bidea, egiturak eta azpiegiturak sortu, euskal kultura hazi eta zabaldu zedin. Horretarako, eskuratutako diru guztia euskal kulturaren mesederako ibiliko zen.

Honela lan eginez urte guzti hauetan zehar enpresak sortzen joan dira. Eta orain dela 5 urte konturatu ziren zerbait egin behar zutela guzti horrekin. Etengabe hazten joan zirela eta jada, kasik ohartu gabe "imperio ekonomiko" bat zutela esku artean. Hasierako filosofiari jarraiki, enpresa guzti horiek bere baitan hartuko zituen egitura juridiko baten bila hasi ziren. Eta aukerarik egokiena fundazioa zela adostu zuten. Honela Fundazioaren estatutuetan jasoa dute akzio guztiak eta ondasun guztiak fundaziora pasatzen direla, eta itzulezinak direla. (Anexoetan gehituta dago Euskalgintza Elkarlanean Fundazioaren sortze-gutuna)

Diputaziokoei eta Gasteizeko justizia sailekoei kostatu omen zitzairen sinistea. Zaila bai da sinisteko, horrelako emporio baten jabe zazpi lagun izan eta bertatik ateratzea. Eta gehiago gaur eguneko sistemaren funtzionamendua ikusita. Baina azalpena argia da, 30 urte hauetan zazpi lagun hauek ez dute inoiz guzti horren jabegoa sentitu. Jabego horrekin aurrera egin izana sentitu dute, euskal kulturaren eta euskararen alde medioak jarri izana.

Hori izan omen da guztiaren sekretua. Momentu honetan ez dago jaberik, Fundazioa da guztiaren jabe. Noski, Fundazioan patronatu bat dago, kultur munduko jendeak osatua. Patronatu honek hartzen ditu Fundazioari dagozkion erabakiak, baina ez enpresenak. Fundazioa guztiaren jabea da, baina enpresa bakoitzak bere egitura eta autonomia izaten jarraitzen du.

Merkatuan lehiatzen jarraitu behar dela diote, etekinak ateratzen. Eta 30 urte hautan egin duten bezala irabazi horiek berriro enpresan berrinbertitzen jarraituko dute, enpleguak sortzen eta gauza berriak egiten. Gasteizen megadenda handiago bat irekitzekotan dira, Egunkaria eta Grafikas Lizarrarekin Andoainen 20.000 m²-ko kultur parke bat eraikitzekotan dira urte bukaerarako,....guztia noski, kredituekin, arriskatuz, eta beste erakunde batzuekin elkarlanean.

LABURBILDUZ

Erakundeen irabazi asmoei dagokienean lehendabizi, ikusi dugun bezala, komenigarria da erakundeen eraketa motari erreparatzea. Aipatu bezala elkarte moduan egituratuta dauden erakundeek ez dute inolako irabazi asmorik.

Bildutako informazioaren arabera, elkarteetako jendea gustura ageri ohi da urtea zeroan amaitzen badute. Soldatak ordaintzeko lain ateratzen dute, eta hortik aurrera zerbait gehiago gelditzen bada, elkartean bertan inbertitu ohi dute, beti egoten bai da non gastatua.

Aztertutako zenbait elkartek gainera dokumentategiak dituzte edo sortzen ari dira. Eta jakineko gauza da dokumentategiek diru kantitate esanahikorrek irensten dituztela. Diru hau ez bai da berriro eskuratzen.

Gainontzeko erakunde guztiek ere argi dute irabaziak behar dituztela lanean jarraitu nahi badute. Fundazioen kasuan irabazitako guztia berrinbertitu egiten dute. Fundazio bateko kide batek adierazi bezala beraiek beti oso garbi izan dute euskal kulturgintzatik ateratako diruak, euskal kulturgintzan berrinbertitu behar zirela, ezin zituztela irabaziak beraien behar pertsonaletarako erabili. Ildo honetatik, ateratako etekinak enpresa edo asmo berriak gauzatzeko eta honela lanpostu gehiago sortzeko erabiliko dira nagusiki.

Kooperatiba eta Sozietate Mugatuena kasuan ere hauen irabazi asmoa garbia da. Kooperatiba bezala eratuta dauden erakunde gehienak Euskaltegiak dira. Euskaltegien diru sarrerena ia erdia Eusko Jaurlaritzako dirulaguntzetatik dator, beraz aipagarria da instituzioekiko duten dependentzia. Langileen lan baldintzak ere ez dira egokienak, soldata baxuak eta 12 paga kasu gehienetan. Hau honela, dituzten irabazi apurren zati bat %50 bazkideen artean banatzen da eta beste erdia euskaltegian bertan berrinbertitzen da. Langileen lan baldintzen ondorioa izango litzateke irabazien erdia bazkideei bideratzea, egoera hobeagotan lan egingo balute guztia berriro berrinbertitu egingo lukete.

Antolaketa demokratikoa eta funtzionamendu partehartzailea


Atal honetan bi maila zehaztuko dira; alde batetik enpresaren jabetza mailako partehartzea eta bestetik laneko funtzionamenduko partehartzea.

Erakunde baten organigramak bertako partehartzea adierazten ez duen arren, lagungarri izan daiteke eraketa modua eta jerarkizazioak ezagutzeko. Organigrama ereduak partehartzea baldintzatuko du, erraztuz edo zailduz. Lehenik eta behin beraz erakundeetako organigrama ereduari buruz hitz egingo dut. Ondoren talde bakoitzeko jabetza mailako eta laneko partehartzea banan bana azalduko dira.

Aztertutako erakundeetan hiru organigrama eredu bereizten dira:

- Elkarte, Kooperatiba eta Sozietate Mugatuetaoak.
- Fundazioetakoak.
- Koordinadora batekoa.

Aztertutako Elkarte, Kooperatiba eta Sozietate Mugatuetako organigramak oso antzekoak izan dira. Gehienek ondorengo eredua jarraitzen dute:




- Maila honetatik aurrera elkartearen tamainak baldintzatuko du organigrama. Zenbait elkartetan lehendakariaren ondoren jada langile bakoitza agertuko da. Beste zenbaitetan bokalak agertzen dira, sailtako arduradunak eta zenbaitetan “talde eragilea”ren irudia ere agertzen da. Normalean maila honetatik aurrera organigrama zabaltzen joan ohi da.

Kooperatiba eta Sozietate Mugatuen organigramak multzo honetan sartuko nituzke, elkarrekin oso antzekoak baitira. Kooperatibetan Zuzendaritza Batzordearen ordez Kontseilu Errektorea agertzen da eta Lehendakariaren ordez Zuzendaria.

Sozietate Mugatuei dagokienean berriz ez dago desberdintasunik, aztertutako S.M-ak txikiak dira eta Batzar Nagusiaren ondoren langileak agertzen dira zuzenean.

Jakina denez, desberdintasunik garrantzitsuenak Batzar Nagusiaren eraketan nabaritu dira. Elkarteetan eta Kooperatibetan bazkideek osatuko dute Batzar Nagusia, Sozietate Mugatuetan berriz partizipazioen jabe direnak egongo dira Batzar Nagusi horretan. Erakundeetako langileak bazkide diren edo ez ikusi beharko da maila honetan dituzten partehartze aukerak neurtzeko.


Bigarren organigrama mota Fundazioei dagokiena izango da. Erakunde hauetan organigrama horizontalagoekin topo egiten dugu. Hurrengo orrian agertzen den organigrama eredua jarraitzen dute aztertutako fundazioek.



Goian agertzen den eredu organigram sinpleena izango litzateke. Fundazioaren tamaina eta beharren arabera lan talde edo azpisail gehiago aurki ditzakegu. Eta hauen ostean ere organigrama zabaltzen joango litzateke, langile guztiak bere baitan hartu arte.

Fundazioetako batean argi adierazi zuten gerentzia zela erakundearen ildoak markatzen zituena, bere izango litzateke fundazioaren filosofia argien duena eta hori lortzeko bideak markatzen dituen. Bestean berriz batzarrean egongo litzateke pisu gehien, Batzorde Zuzendaria figura erretoriko soil bezala agertzen da.

Hirugarren eta azken organigrama eredu koordinadora eta federazioei dagokiena da. Erakunde hauek beren baitan beste elkarte edo fundazioak batzen dituzte. Asanblada bidez funtzionatzen dute eta desberdintasun garrantzitsuak aurkezten dituzte orain arte ikusitako organigrama ereduetatik, batik bat koordinadorak. Jarraian datorren orrian adierazten da bere organigrama.



Organigrama eredu hau euskaltegi sare bateko koordinadorari (IKA) dagokio. Gorago aipatu bezala erakunde honek asanblada bidez funtzionatzen du. Honela, lehenengo zentro bakoitzeko batzarrak egingo dituzte, ondoren bailara edo herrialdekoak eta azkenik erakunde guztiko Batzar Nagusia.


Erakunde honek adostasunean oinarritutako batasuna bilatzen du eta autonomiak horretarako bidea ematen dielakoan daude.

Erabaki guztiak batzarrean hartzen dira. Ez dute bozketarik egiten eta erabaki guztiak adostasunez hartzen dituzte. Badakite eta onartzen dute bide luzea eta zaila izaten dela sarri,

baina argi dute beren filosofia; ez dute botere zentroetan sinisten, ez eta organigrametan ere.

Modu honetan lan eginez botere taldeak sortzeko arriskua saihesten dute. Batzar guztiak irekiak dira bai irakasle eta bai ikasleentzat. Gutxienez elkarre bakoitzeko ordezkari batek joan behar du, ordezkaritza minimo hau ziurtatu ostean nahi duen guztiak ager daiteke eta bere iritzia eman. Muga bakarra hizkuntzak ezarriko du.

Federazioek ere asanblada bidez lan egiten dute, baina hauen organigrama zertxobait bertikalagoa da.




Asanblada Orokorra urtean behin bilduko da eta elkarre partehartze kopurua mugatuta egongo da. Elkarre beren tamainaren arabera ordezkari kopurua izango dute bertan. Federazioen organo garrantzitsuena, lan ildoak zehaztuko dituen, Zuzendaritza Batzordea izango da. Zuzendaritza Batzorde hau hilabetean behin bilduko da eta pertsona kopuru jakin batek osatuko dute, langileak eta lan taldeetako ordezkariak. Bestalde lan-talde bakoitzak bere dinamika propioa landuko du, beti ere Federazioaren ildo nagusiei jarraituz.

- JABETZA MAILAKO PARTEHARTZEA

Euskaltegiak

Euskaltegien jabetza mailan partehartzea izango duten bakarrak kooperatibetako eta Sozietate Mugatuko bazkideak izango dira. AEK eta IKA kultur elkarte eta fundazio bezala eratuta egotean bertako jabetza bazkideen esku egongo da elkarteen kasuan eta fundazioaren esku berriz hauetan. IKAREN kasua berezi xamarra da jabetzari dagokionean, eta geroago komentatuko da.

Ilazkik 38 langile ditu eta horietatik 25 dira bazkide. Maizpiden 32 pertsonak lan egiten dute urtean zehar, horietatik 20 bazkideak. Ulibarrin 42 langile dira, Urrats-en 20, hauetatik 6 bazkide direlarik. Azkenik Hitzez-en 15 pertsona hari dira lanean, eta hauetatik 4 dira bertako partizipazioen jabe. Jarraian ageri deiren grafikoek kontratatu eta bazkideen portzentajeak erakusten dizkigute.



Kontratatuen inguruan galdetzean guztiak gauza bera diote. Beren baliabideek eta egoerak ez diela aukerarik ematen langile berriak bazkide bezala sartzeko. Urtero euskaltegiak klase orduak aldatu egiten dira, eta inoiz ez dakite zenbat ikasle izango dituzten eta beraz zenbat irakasle beharko dituzten. Bazkideek eman lezaketen baino talde gehiago badituzte kontratatuak hartuko dituzte.

Aipatutako erakundeetan bazkide diren pertsonak izango dute jabetza mailako partehartzea. Euskaltegi hauek duten ondarea lan egiten duten egoitza eta bertako materiala da. Eta hau ere ez kasu guztietan. Maizpidekoen lokala Eusko Jaurlaritzarena da, honek 2007. urterarte lagata dio Maizpideri. Beraz, Maizpide kooperatiba ez da lan egiten duen egoitzaren jabe. Urrats-ek bi egoitza ditu Donostiako Amara Berri azoan, kooperatiba hauetako baten jabe da, baina bestea alokatuta dute. Gainontzekoak, AEK eta IKA kenduta beren egoitzen jabe dira.

Lehenago ere aipatu dut IKA-ko euskaltegiak kultur elkarte eta fundazio bezala eratuta daudela. Elkareetako egiturak ezartzen duenez, talde honek bere lan eten ezker bertako jabetzak bazkideen eskuetara pasatzen dira. Baina IKAko euskaltegi hauek berezitasun bat jaso dute beren estatutuetan. Jabegoa saltzeko ateak itxita dituzte. Ezin dituzte ondasunak saldu. Eguneroko lanean, eta IKAren funtzionamenduan jabetza beraiena da, langileena, baina helburu horretarako soilik, hortik kanpora ez dute inolako jabetzarik. IKAk edozergatik bere ondasunak galtzen baditu, hauek euskararen alde lanean ari den beste elkarte edo erakunde batengana pasako dira.

Euskara lan munduan sustatzeko enpresak

Erakunde guztietan jabetza bazkideen esku egongo da. Gero, bakoitzak zenbateko jabetza duen ikusi beharko da. OEEkoak adibidez ez dute egoitza propiorik, helbide partikular bat agertzen da paperetan. Ez eta soldatapeko langilerik ere, azkeneko urtean administrari bati orduka ordaintzen hasi badira ere. Euskalanekoek lokal bat dute, eta egunean ordubeteko kontratua duen pertsona bat. Bi erakunde hauei dagokionean behintzat ezin da esan jabetza handiegirik dutenik, eta oraindik gutxiago dituzten bazkide kopurua jakinda. OEEkoek 700 bazkide dituzte, Euskalanekoek berriz 1.300. Datu eta zenbaki hauek ezagututa jabetza mailako partehartze gutxi izango dutela esan liteke.

Elhuyar eta Emunez hitz egitean berriz beste tamaina bateko erakundeez ari garela esan behar da. Elhuyarrek 36 bazkide ditu, hauetatik 21 enpresan bertan ari dira lanean eta beste 15 kanpoan. Baina, langileak guztira 52 dira. Guzti hau ulertzeko beharrezkoa da Elhuyarren bilakaera ezagutzea.

Elhuyar 1972. urtean sortu zen. Hasieran talde informal bat zen. Larunbatero biltzen zena. Bilera hauetan zer lan eta nork egingo zituen erabakitzen zen, egindako lanak zuzendu eta komentatzen ziren,...Egitura informal eta militante bezala definitzen dute garai ura. Hasiera artako talde kideak dira 36 bazkideak. Eta inoiz ez dute nahi izan bazkide kopurua igotzea. Elkarte egitura du Elhuyarrek, eta berez, teoriak bazkide berrietara ateak irekita eduki behar ditu. Baina beraiek arazo bat ikusten dute elkarte egitura honetan. Elkarte batean Batzar Nagusia da erabakitze organo gorena. Batzar honetan bazkide guztiak daukate hitza eta erabakitze eskubidea. Elkarte bat asko zabaltzen denean interes desberdineko jendea sartu

litekeela diote, eta interes horiek momentu baten elkartearen jatorrizko helburuen auka egon daitezkeela. Honegatik mantendu dute bazkide kopurua, eta arrazoi beragatik erabaki dute Fundazio bihurtzea. Elkartearen jatorrizko jarduna eta helburua babesteko.

Gainera, beste alde batetik elkarteak ez daude gaur egun Elhuyar bezalako enpresa batek manejatzen dituen dirutzak eta tamaina ekonomikoak kudeatzeko pentsatuta. Aspalditik zuten kezka bat zen kultur elkarteak ez zuela biderik ematen beraien jabetza kudeatzeko, helburak babesteko eta etorkizuna bermatzeko. Eta momentu batean azterketa bat burutu zuten, beste egitura mota batzuk aurkitzeko. Hasieratik hiru baldintza jarri zizkioten bila zebiltzan egitura juridikoari:

- 1.- Elkartearen jarduera babestu behar zuen.
- 2.- Ondarea ezin zen pribatizatu (inork ezingo ditu erakundeko irabaziak poltsikoratu).
- 3.- Gizarte oinarria zabaldu behar zuen.

Azterketa burutu ondoren ikusi zuten legeak aukera bakarra ematen zuela: FUNDAZIOA.

Gauzak honela, Elhuyar fundazio bilakatzean, bertako jabetza guztia fundazioaren esku egongo da. Gaur egun bazkideen esku dago, hasierako 36 horien esku.

Emun kooperatiba denez, bertako jabetza bazkideen esku egongo da. Emunen gaur egun 36 pertsona ari dira lanean, hauetatik ez dakit bazkide eta kontratatuen zenbatekoa nola den. Enpresan bertan, bazkide eta kontratatuen artean inolako desberdintasunik ez dela egiten adierazi zidan bertako zuzendariak. Eta inoiz ez dutela zatiketa hori egiten, Emunen lanean ari diren guztiek lankideak omen dira. Guztiek eskubide eta bete behar berak omen dituzte eguneroko lanean. Legeak ordea desberdintasunak ezartzen ditu, eta jabetza mailako partehartzea eta galeren aurren izango duten erantzukizuna bazkideen esku egongo da.

Komunikabideak

Topaguneko kideek diote beraiek ez dutela inolako jabetzarik, eta beraz ez eta partehartzerik ere. Erakundeak 3 egoitza ditu, baina hauetako inor ez da Federazioarena. Udalek edo eta elkarteren batek utzitako lokaletan lan egiten dute. Lan materialaren jabe izango lirateke soilik. Dena dela, jabetza hau Topaguneko bazkide diren elkarteena izango litzateke, ez langileena. Topaguneko 63 elkarte batzen ditu bere baitan, hauen esku egongo litzateke jabetza. Langileek jabetza mailan inolako partehartzerik ez dutela komentatzen dute.

Hik Hasi eta Jakin partizipaziotan banatuta daude. Jakinek 5 bazkide ditu eta Hik Hasik 15. Hik Hasiren kasuan 15 bazkide horietatik bat bertan ari da lanean. Kasu hauetan, beren egitura dela eta jabetza mailako partehartzea bazkideen esku egongo da. Karmel aldizkariari dagokionez, jabetza Karmeldarren esku egongo da.

Guraso Elkarteak

Big Federazioa elkarte den aldetik, bertako bazkideen esku egongo da jabetza. Gaur egun 250 guraso elkartetik gora ditu asoziatuta.


Herri mugimenduak

Konfederazia bere eguneroko lanak aurrera eramateko bulego zentral baten jabe da. Bertako jabetza konfederazioko bazkideen esku egongo da. 82 bazkide ditu egun.

Kultura

Jabetza mailako partehartzea eta erantzukizuna bazkideen esku egongo da Gerediaga eta Bertsozale Elkartean. Gerediagakoak argitzen dute beraiek ez dutela inolako jabetzarik. Egoitza kokatuta daukaten lokala Foru Aldundikoa da. Honek beren zereginetarako uzten die. Beren berena ordenadoreak soilik direla komentatzen dute.

Gerediaga elkarteak 300 bazkide ditu gaur egun. Euskal Herriko Bertsozale elkarteak berriz 1.490 bazkide ditu momentuan.



Datu hauek ezagutarazi ondoren, bi elkarteren lan eremuak zeharo desberdinak direla zehaztu behar da. Gerediaga elkarteak Durangaldean lan egiten du, 12 herri artzen ditu bere baitan; Ermua, Mallabia, Zaldibar, Berriz, Durango, Iurreta, Elorrio, Axpe, Atxondo, Mañaria, Izurtza, Abadiño eta Otxandio. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak berriz, lehen esan bezala, Euskal Herriko zazpi probintzian lan egiten du.

Argitaletxeak

Euskal Editoreen Elkarteko jabetza 20 argitaletxeren esku egongo da. Elkarteko bazkideen esku hain zuzen ere. Zehaztu behar da Elkartea honek duen jabetza ez dela oso handia lokalaren eta bertako materialaren jabe dira soilik. Eta lokala ere idazle eta itzultzaileen elkartearekin banatzen dituzte.

Euskalgintza Elkarlanean Fundazioaren jabetza berriz oso handia da, 120 enpresen jabe da fundazioa. Baina Fundazioa ente abstraktu bat da, eta beraiek diotenez ez dago jaberik. Eta

beraz, jaberik ez dagoenez ez dago inolako partehartzerik jabetzan. Euskal Kulturgintza izango litzateke guztiaren jabe, baina hori esan edo ezer ez esatea berdin da.

LABURBILDUZ

Alor honetan erakunde gehienetan diote ez dute inolako partehartzerik jabetzan. Izan ere esan beharra dago elkarte askok ez dutela jabetza handiegirik. Ditutzen lokalak udaletxe edo Diputazioek lagatakoak dira, eta beraien jabetza duten lan-materialera mugatzen da. Jabetzaren bat duten elkarteetan berau bazkideen esku egongo da. Baina elkarteetan orokorrean jabetza hauek ez dira handiegirik, erakundearen egoitza eta bertako lan materialera izango litzateke duten guztia.

Jabetza maila txikia duten erakunde hauen ondoan, 120 enpresen "jabe" diren fundazioak aurkitzen ditugu. Baina kasu honetan ere, beraiek azaldu bezala ez dago langileen aldetik inolako partehartzerik jabetzan. *"Ez dago jaberik. Eta jabegorik ez dagoenez ez dago partehartzerik. Inor ez da ezeren jabe. Fundazioa izango litzateke guztiaren jabe, baina fundazioa ente abstraktu bat da"*. Honelako erraz adierazten dute jabetza mailako partehartzea.

Kooperatiba bezala eratuta dauden erakundeetan jabetza bazkideen eskuetan ageri da. Bazkideak, enpresak dituen jabetzen kargu diren heinean, jabetza hau bazkideen esku egongo da. Beste kontu bat da, lokalak erakunde publiko batek utziak direnean. Kasu hauetan ez dago inongo jabetzarik.

Beste erakunde batek estatutuetan jasota du jabetzaren inguruan sor daitezkeen inguruko tirabirak. Ildo honetatik jabegoa saltzeko atak itxita daudela zehazten dute. Eguneroko lanean jabetza erakundearena da, baina beren helburua lantzeko soilik. Hemendik kanpo ez dute jabetzarik. Ezin dituzte ondasunak saldu, eta edozer gauza dela medio erakundeak bere ondasunak galtzen baditu, hauek euskararen alde lanean ari den elkarte edo erakunderen batengana pasako dira.

- LANEKO FUNTZIONAMENDUKO PARTEHARTZEA

Atal honetan langileen eta bazkideen partehartze mailak aztertuko dira. Enpresen kasuan langileen partehartzea zenbaterainokoa den eta ea berau bultzatzen den ikusiko da. Erabakiak non eta nola hartzen diren ere jakingo dugu, goitik beherakoak edo behetik gora doazenak diren zehaztuz.

Euskaltegiak

Eguneroko lanean langileen partehartzea hona dela diote. Euskaltegi guztietan ohikoak dira bilerak eta talde lanak. IKA koordinadora izatean garrantzi gehiago ematen diote gai honi, baina beraiek esan bezala dramatizatu gabe. Asanblada bezala funtzionatzen dute, eta beraz ezinbestekoa da jendearen partehartzea, baina euskaltegiren bati gai bat ez bazaio interesatzen (Adib: alfabetatzea Errioxan), ez du parte hartzen batzar horretan eta kito.

Batzar guztiak irekiak dira, nahi duenak parte hartzen du eta nahi duenak ez. Gai orokorrekoak direnean gutxienez euskaltegi bakoitzeko ordezkari bat joan beharko da, baina bestela bakoitzak ikusiko du.

Guztien iritziak errespetatzen direla komentatzen dute erakundeek. Hautako batean iritziak eta ideiak eta pertsonak bereiztu beharraz hitz egiten dute. Iritziz aldatzea posible dela eta gainera aberasgarria dela sinesten dute. Eta norberaren iritziaz aldatzen ikasi beharraz mintzo dira.

Partehartzearekin erlazionatuta erantzukizunen gaia agertzen da. Honi buruz langile bakoitza bere lanaren erantzule dela diote guztiek, eta horren erantzukizuna izango duela.

Euskara lan munduan sustatzeko enpresak

OEEen eta Euskalanean odutzako langileak dituzte eta beraz hauen partehartzea erabateko izango da eguneroko lanean. Gero bazkideen partehartzea aztertu beharko da. Bi erakundeetan bazkide guztiak urtean behin bilduko dira Batzar Nagusian. Hemendik aparte, bi erakundeetan urtean hainbat aldiz biltzen den Zuzendaritza Batzorde bat dute, Batzorde bazkideen ordezkariak osatzen dute, eta Batzar Nagusiak aukeratuko du. Bazkideen partehartzea beraz Batzar Nagusira mugatu egongo da.

Emunen eta Elhuyarren gauzak bestelakoak dira. Langileen partehartzea handia dela komentatzen dute, eta bi kasuetan ere ohikoak izaten dira langile guztien arteko bilerak.

Organigrametan ikusi ahal izan denez, bi erakundeetan lan taldetan edo negozio unitateetan lan egiten dute. Talde txikietan. Ostiraletan langile guztien arteko bilerak egiten dituzte, bakoitzaren eguneroko lanaren martxaz hitz egin eta beraien artean pixka bat ezagutzeko. Honez gain azpisail bakoitzak bere bilerak egiten ditu. Azpisail hauek Elhuyarren kasuan autonomoak dira. Zuzendaritzaren lan ildo oinarrizkoak jarraituz bakoitzak erabakitzen du bere bidea.

Emuneko ofizina bisitatzeko aukerarik ez nuen izan. Baina Elhuyarreko egoitzan egon nintzen, eta planta guztia guztiz irekia dela esan behar dut. Ez dago langileak elkarren artean banatuko dituen kristal edo tabikerik. Guztiak elkar ikusten dira, eta sare informala oso erraz eratzen zela komentatu zidan bertako zuzendariak.

Erabakiak hartzeko orduan langile guztien iritziak balio berdina duela eta guztien iritziak pisu bera duela baieztatzen dute guztiek. Langile batzuk esperientzia gehiago eta pertsonalitate fuerteagoa izateak diferentziak markatuko dituela onartzen dute Elhuyarrekoek. Baina berez guztien iritziak berdina balio du, zerbait esateko duenak hitz egiten du eta entzun egiten zaio.

Kudeaketa plana da Elhuyarreko gestio erramienta. Plan hau Batzarrak erabakitzen du, baina Batzarrera behetik landuta iristen da. Batzarra tramite hutsa izaten dela baieztatzen dute, gauzak zuzentzeko soilik erabiltzen dutela. Sail bakoitzak bere kudeaketa plana lantzen du. Noski, zuzendaritza Batzordeak gauza orokorreari buruzko plana egiten du, erakundearen helburuak finkatuz, oinarriak zehaztuz.

Esan bezala, Zuzendaritza Batzordeak Kudeaketa Planaren zati bat lantzen du, baina sail bakoitzak bere lanak, proiektuak, baliabideak,... zehaztuko ditu. Ondoren Zuzendaritza Batzordeak plan guztiak batu eta aztertu egingo ditu. Sailek proposatutakoaren eta zuzendaritza Batzordeak zehaztutakoaren artean kontraesanik ba al dagoen ikusi, ezarritako lehentasunak betetzeko nahiko baliabide ba al dituzten aztertu,... Norbaiti zerbait esan edo zerbait negoziatu behar bada, berriro elkartu hitz egin eta gauzak aldatzen dira. Azkenik plana onartzen da Zuzendaritza eta Sailburuen arteko bilera batean, eta Batzar Orokorrera aurkezten da. Urtean zehar jarraipen bilerak egiten dituzte 20 egunero, planean zehaztutako betetzen ari den edo ez ikusteko, eta zailtasunak badaude hauek konpontzen saiatzeko.


Emunen ere antzeko prozesu bat jarraitzen dute. Desberdintasun bakarra erabiltzen dituzten terminoetan dago. Emunen lan taldetan banatzen dira langileak, eta Elhuyarren sailetan. Emunen gainera lankideen partehartzea bultzatzeko bitartekoak jartzen saiatzen dira. Ildo honetatik, lankide guztiak (zuzendaritzakoak kenduta) parte hartu ahal izateko organo bat martxan jarri nahi dute, Kontseilu Soziala edo antzeko zerbait, oraindik ezer zehaztu gabe duten arren.

Partehartzeari dagokioneak Elhuyarren bitxikeria bat aurkitu dut. Beraiek landuteko konbenioa dute. Azkuntza prozesua dela eta, gero eta langile gehiago hartzen dituzte. Beraiek hasieratik argi zuten ez zutela nahi inongo sindikatu beren enpresan sartzea. Hau honela, beren konbenio propioa egitera erabaki zuten. 1999an landu zuten gaur egun indarrean dagoen konbenioa. Langile guztien artean adostutako konbenioa da. Eta Elhuyarrera sartzen den langile berriek hitzarmen hau sinatu behar izaten dute kontratuarekin batera. Beste konbenioetan agertzen ez diren zenbait gauza berezi dituzte, beraientzat garrantzitsuak direnak, hala nola:

- Urte sabatikorako eskubidea (Elhuyarren zazpi urtez lan egin ostean).
- Ume adopzio baimenak amatasun baimenen pareko dira.
- 1.532 orduko plana. Datorren urtetik aurrera astean 35 lan ordu egingo dituzte.

Komunikabideak

Eguneroko lanari dagokionean langileen partehartzea erabatekoa dela komentatzen dute guztiak. Erakunde guztietan lan talde txikiak dira. Karmel aldizkarian 2 pertsona hari dira lanean, Jakinen 3, Hik Hasin 4 eta Topagunean 7. Hurrengo orriko grafikoak ondo adierazten ditu zenbateko hauek.



Erakundeari buruzko erabakiak hartzeko eskubide osoa dutela diote. Beti ere gaiaren garrantziaren arabera. Zenbait kasutan Bazkideekin bildu behar izaten dutela diote, arazoa kontsultatu, beren iritzia ezagutu, eta erabakirik egokiena hartzeko. Baina bestela, eguneroko gaietara dagozkien erabakiak beraiek hartzen dituztela. Kafe orduan bildu, hitz egin eta erabakia adostu.

Topaguneari dagokionean, bertako langileak Zuzendaritza Batzordean daude. Batzorde hau 9 lagunek osatzen dute, 5 bazkideen ordezkariak izango dira, lan taldeetako arduradunak, eta beste 4 langileen ordezkariak. Ala ere langileek zuzendaritza Batzordean duten partehartze bakarra presentziala da. Ahotsa dute baina botorik ez. Erakundearekin kontaktu zuzena dutenak dira, dinamika gehien jarraitzen dutenak.

Guraso Elkarteak

Gaur egun Bigen 7 pertsona ari dira lanean. Beren partizipazioa eguneroko lanean erabatekoa da. Langile bakoitzak bere zereginak eta ardurak izango ditu, eta parte hartu beharko dute elkartearen eguneroko zereginetan.

Organuen aldetik, elkarte diren heinean lehendakari bat, lehendakari ordea, diruzaina eta idazkaria dituzte, eta hauen baitan batzorde bat eta asanblada. Asanbladaren zeregina izango da organuen aukeraketa.

Herri mugimenduak

Gaur egun konfederazioan pertsona bakar bat ari da lanean, eta bera egun erdiz. Datorren urtetik aurrera egun osorako kontratatzea espero dute. Pertsona hau koordinazio eta administrazio lanak egiteaz arduratzen da.

Langile honen partehartzez gain, bazkideen partehartzea ere kontuan izan beharreko da. Egun Euskal Konfederazioak 82 bazkide ditu:

- 7 federazio.
- 55 elkarte (irakaskuntzako hiru sareak, Piztu, UEU, Irratiak; Irulegi, Gure irratia, Xiberuko boza, EHE,...).
- 20 pertsona euskaltzale eta intelektual.

Bere lan ildoak aurrera eramateko eta proiektu berriak gauzatzeko behar beharrezkoa izango da guztien lana eta partehartzea. Eta azkenaldian garatzen ari diren ekintza guztiak kontuan izanik bazkideen eta inguruko enpresen partehartzea handia dela esango nuke.

Kultura

Gerediaga eta Bertsozale Elkarteetako organigramak hasieran aipatutako elkarteei dagokien organigramaren berdinak dira. Batzar Nagusia da organo gorena, eta bertan bazkide guztiek beren iritzia eman eta botoa emateko eskubidea dute.

Bazkideen partehartzearen inguruan Gerediagakoek desberdintasun bat egiten dute. Nolabait adierazteko bazkide aktiboak eta bazkide pasiboak bereizten dituzte. Azken hauek urteko kuota ordaintzeaz soilik arduratuko dira, ez dira elkarteaz gehiago kezkatuko, Batzar Orokorretara ere ez dira agertuko. Bazkide aktibo deitu diegunak bazkide izateaz gain borondatezko lana egingo dute, ideiak proposatu, esku bat luzatu behar denean luzatu,...

Elkarteei dagozkien erabakirik garrantzitsuena Zuzendaritza Batzordeak hartzen ditu bi kasuetan. Eguneroko jardunean berriz langileek beraiek hartzen dituzte erabaki gehienak. Gerediagakoek azaldu bezala, erabaki txikiak eta Gerediagako filosofia barruan sartuta daudenak langileek beraiek hartzen dituzte. Baiana erabaki batek suposatzen badu Gerediagako filosofian non kokatu ez dakitela, orduan Zuzendaritza Batzordea jotzen dute, eta honek erabaki behar izaten dut.

Eguneroko lanari dagokionean langileen partehartzea erabatekoa omen da, ala baieztatu dute behintzat bi elkarteetako kideek. Bietan ere lantalde txikiak dira. Gerediagan 4 pertsona ari dira lanean, Euskal herriko Bertsozale Elkarteetan 9. Baina Donostiako egoitza zentrolean 7 lagun daude, gainontzekoak probintzia desberdinetako taldeetan ari dira lanean.

Argitaletxeak

Euskal Editoreen Elkarteetan langile bakarra dago. Bere partehartzea beraz erabatekoa da, bera da elkartearen eguneroko zeregin guztietaz arduratzen dena, eta eguneroko martxa jarraitzen duena. Gero noski, argitaletxeek ere parte hartuko dute, gehienbat lan ildoak markatzeko orduan. Honela, organigraman, idazkaria baino gorago lau bokalez osatutako batzorde bat aurkitzen da, eta ondoren lehendakaria eta Zuzendaritza Batzordea. Editoreen Elkarteetako Batzar Nagusia urtean bitan biltzen da. Bokalak eta Zuzendaritza Batzordea ere maiz biltzen omen dira.

Euskalgintza Elkarlanean Fundazioaren kasuan gauzak konplikatuxeagoak dira. Fundazioak 300 langile ditu bere baitan, eta langile hauek ordezkariak sindikala dute lan egiten duten enpresen barruan. Harreman laboral normalizatuak dituztela komentatzen dute. Langileek komite batean ordezkariak ordezkariak bat dute. Fundazioaren hiru lan esparruak; ekoizpena, banaketa eta salmenta bereiztuta daude. Eta bakoitza bere komitea du.

Normalean harremanak onak direla diote, baina negoziatu egiten dira sortu daitezkeen gauzak. Egoera honetan kontraesan batekin topo egiten dute. Normalean konbenio bat negoziatzean bi alde egoten dira; patronala eta langileria. Baina Fundazio honetan patronala atipikoa da. Langileen ordezkariak negoziatzean lortutako gauza guztiak patronalari ere berdin aplikatuko bai zaizkio.

Askotan gauzak konplikatatu egin daitezkeela komentatzen dute langileek ikuspuntu laborala bakarrik badute eta filosofikoa barneratu gabe badute. Zorienez langileria gehiengoak barneratuta omen ditu ideia hauek eta badaki enpresak errentagarriak egin nahi baditu eta gainera euskararen eta euskal kulturaren mesedetan beste eskema batzuk eduki behar dituela. Guztiek eskubide batzuk izango dituzte baina denek egin behar dute esfortzu bat. Beti konbenioak ezarritakoa baino goragotik dabilta, baina normala den bezala langileak beti gehiago nahi izaten du. Tirabira batzuk sor daitezke, baina printzipioz ondo konpontzen omen dira. Beti bi ikuspuntu horiek aurrean izanik; ikuspuntu laborala eta ikuspuntu filosofikoa.

Partehartzeari dagokionean norberaren inplikazioa aipatzen dute. Langile zaharren eta berrien arteko bereizketa bat egiten dute beraiek. Enpresan urte asko daramatzen jendea oso inplikatu omen dago. Batipat enpresaren bilakaera ezagutu duelako, eta ikusi duelako hor ez dela inolako tranparik egon. Sortutako guztia euskalgintza sustatzera berrinbertitu dela, helburu jakinetarako erabili direla irabaziak, eta ez pertsona konkretuak aberasteko. Baina gero jende berria ere sartzen da, enpresaren historia ezagutzen ez duena. Eta kosta egiten da hauei ezagutu ez duen errealitate eta egoera bat ezagutaraztea. Partehartze hau geroz eta txikiagoa dela ere komentatzen dute, baina fenomeno generalizatua dela diote, beste elkarte eta enpresa askotan ere gauza bera gertatzen baita. Ala ere gustora ageri dira langileen partehartzearekin, eta inplikazioa maila ona dutelakoan daude, bai proiektuetan, filosofikoki, laboralki,....

Gehitzen dute proiektuarekin filosofikoki bat datorrenak baduela zer esanik Fundazioan eta enpresetan. Gehinbat ekoizpen mailan, hemen kultur arloan mugitzen den jende asko dago, Joxean Ormazaba, Xabier Mendiguren, Joxe Azurmendi,.. .persona hauek beste kontzientzia bat omen dute, eta zer esan handia gainera. Jendeak egindako aportazioak errespetatu eta kontuan hartzen omen dira. Gerentziak hartutako erabaki asko bilera askoren eta asko entzun eta iritzi asko jasotzen hartuak izaten omen dira. Askotan gertatzen omen da baita ere gerentzia bakarrik dela Fundazioaren ikuspegi osoa duena, eta pertsona batek iritzi bat eduki arren ulertarazi behar zaiola jokoan beste gauza batzuk ere badaudela.

LABURBILDUZ

Guztiok dakigu organigramei kasu gehiegirik egin gabe, harreman naturalagoak eraten dituztela pertsonak beraien artean. Erakundeetako langileek ere ideia hau azpimarratu dute.

Hemen, orain arte aipatu den bezala erakundearen tamainak baldintzatuko ditu pertsonen arteko harremanak. Erakunde handietan harremanak hotzagoak edo burokratikoagoak izan daitezke. Txikietan berriz harremana zuzena izango da, inolako trabarik gabea.

Erakunde guztiek partehartzea bultzatu beharra azpimarratu dute, eta partehartzearen beharra eta garrantzia. Alde honetatik, pertsona bakoitza desberdina dela eta bakoitzaren araberakoa izango dela partehartzea zehazten dute.

Elkarte bat baino gehiagotan bazkideen arteko bereizketa egin dute. Bazkide aktiboak eta bazkide pasiboak bereizten dituzte. Batzuk kota ordaintzeaz soilik arduratuko dira, besteak berriz beti esku bat luzatzeko prest agertuko dira.

Lehenago aipatu bezala erakundearen tamainak baldintzatuko du bertako antolaketa, partehartzea,... Honela aztertutako erakunderik handienetakoan langileen ordezkariak sindikala aurkitzen dugu. Erakunde guztietan ezaugarri hau duen bakarra da. Alde honetatik harreman laboral normalizatuak daudela esan daiteke. Langileriaren ordezkariak bat dago, komite batean ordezkariak eta hauek gerentziarekin negoziatu beharko dituzte beren arazoak edo buruhaustak.

Baina gauzak ez dira hain errazak, erakunde hau fundazio bat da, eta beraz, bertan ez dago jaberik. Gerente kargua duten pertsona batzuk aurkitzen dira, baina lehenago esan bezala, fundazio batez hitz egiten ari garenez hemen ez dago jabeen figurarik. Beraz, gerentziako karguetan dauden pertsona hauek ere ez dira nagusiak, langile xumeak dira. Orduan batzutan gauzak konplikatu egiten direla adierazten dute. Langileak ikuspuntu laborala soilik badu eta fundazioaren filosofia pixka bat barneratu gabe badu. Zorionez ordea gehiengo batek, sorrerako ideia filosofiko horiek barneratuta dituela adierazten dute. Badakite enpresak errentagarriak egin nahi dituztela eta zein helbururekin; euskararen eta euskal kulturaren mesedetan.

Gainerako elkarteetan langileen partehartzea erabatekoa dela diote. Elkarteetan langile kopurua 7 eta 1 artekoa da, eta kopuru horretako lantaldeetan partehartzea ziurtatua dago.

- BILAKAERA

Esan beharra dago erakundeek bizi izan duten bilakaeraren ondorioa izango dela gaur egunean duten antolaketa ereduak. Erakunderik zaharrenak 35 urte daramatza lanean. 65ean sortu zen, Francoren diktadura garaian. Elkarteko kideek ere ez dakite nola lortu zuten elkarte sortzeko baimena. Garai hartan ez baitzuten euskara kutsua zuen elkarte bat bera ere legalizatzen. Normala den bezala, hasiera hartan euskal kulturaz zerikusitxikiena zuen inguruko jende guztiaren bilgune bilakatu zen. Franco hil eta gero elkarteak legalizatzen

hasten direnean bakoitzak bere bidea hartuko du. Eta honela gaur eguneko egoerara iritsiko ginateke, 300 bazkideko elkarte bat izatera.

Aztertutako beste enpresetako bat bere sorreran Elkarte Kultural bezala eratu zen. Orain dela 4 edo 5 urte bere eraketa modua aldatu eta kooperatiba batean bilakatzea erabaki zuten. Aldaketa honen arrazoi nagusia erakundeak mugitzen zuen bolumena izango zen, Elkarte Kultural bezala jarraitzeko konplikatuena. Kooperatiba bezala eratzea berriz funtzionalitate arrazoiengatik izan omen zen. Langileei begira eta juridikoki ere komenigarriagoa zelako.

Enpresa askotan bilakaerari buruz hitz egitean sortzaileen aurrera jarraitzeko nahia eta beharra aipatzen dituzte. Ideiak argi izan, arriskatu eta oztopo guztiei aurre egin, hau izango litzateke jarraitutako bidea.

Azkeneko urteetan jasandako bilakaera azkarra ere aipatzen dute bat baino gehiagok. Abiadura azkartze hau lehenago egindako lan guztiaren ondorio izango litzateke. Jada egitura eta azpiegiturak oso ondo landuak zituzten eta aukerak aprobetxatzen jakin dutela aipatzen dute. Aurreko lan guztiaren emaitzak biltzen hasi direla.

Baina kasu batzuetarako mesedegarri den aurrerapenak ere baditu bere alde txarrak. Gehienbat nola erabili ez dakigunean. Honela gogoeta faseak erakunde bat baino gehiagotan bizi izan dira azken urteetan. Hain denbora gutxian aldaketa azkarregiak bizi izan ondoren beharrezkoa egiten da, pixka bat gelditu, non eta nola dauden ikusi, nondik datozen gogoratu eta ondoren aurrera begiratu, jarraitu nahi duten bidea zehaztu.

- HEDAPENA

Erakundeen antolaketan bere hedapenak ere zeresan handia du. Herri bateko elkarte bat edo Nazio ikuspegia duen fundazio bat ezin dira berdin antolatu. Honela lan esparru zeharo desberdinak aurkitzen ditugu. Hiriburu batetako auzo batetan lan egiten duen kooperatiba bat izango litzateke txikiena, edo herri mailan lan egiten duen euskara elkarte bat. Hedapen handiena duten erakundeen lan esparrua berriz Euskal Herri osoa izango litzateke, nazio ikuspegi garbiarekin, Nafarroa eta Iparralde ere bere baitan hartuz.

Bitxikeria bezala aipatu, erakunde baten hedapenak muga hauek ere gainditu egiten dituela. Honela lan esparrua Espainiako zenbait probintziatara zabaltzen dute (Madrid, Bartzelona eta Balentzia). Hedapen honen arrazoiaren inguruan galdetuz erantzuna argia da *"besteei aurre hartuz, bestela besteak etor daitezke, multinazional hauek eta orduan bai itoko gaituztela itotzen ari garen bezala, hor daude adibidez superfiziek handiak"*.

Ordainketa mailako elkartasuna

Atal honetan Euskararen Gizarte Erakundeetan lan egiten duten pertsonen soldatak aztertuko ditugu. Nola eta non edo zeinek erabakitzen dituen, zenbat maila edo kategoria dauden eta berauen arteko aldea zenbatekoa den. Guzti hau erakundearen ordainketa mailako elkartasuna aztertzeko helburuarekin.

Euskaltegiak

Euskaltegi-tako soldatei dagokionean, lehenik eta behin esan alor honetan, IKA eta Ilazkiko datuak soilik eskuratu ditudala.

Ilazkin langile bakoitzak egindako lan orduen arabera kobratzen du., bazkide edo kontratatu izan alde honetatik ez dago desberdintasunik. Baina hiru kategoria bereizten dituzte; zuzendariarena, irakasle kontratatuena eta bazkideena. Langile guztiek 12 paga dituzte urtean, honez gain bazkideek urte amaieran irabaziak badaude hauek jasoko dituzte. Zuzendaria da urtean 14 paga dituen bakarra. Kontratatuen kasuan lan hitzarmenean zehaztuta dago beren kategoria, eta *profesor adjunto* eta *profesor titular* arteko zenbateko bat jasotzen dutela adierazten dute.

IKAren kasuan soldatak Batzarrean erabakitzen dira, eta langileen kontratuak kultur elkarteak egiten ditu. Aipatu behar da, beraiek ez dutela langile kontzepturik, honen orde irakasle liberatu hitza erabiltzen dute. Soldatak Batzarrean erabakitzen direla esan da, baina Batzarrak soldata minimoa ezartzen du (121.000 pta. hilabetearen eta 12 paga urtean). Minimo hau IKAko euskaltegi guztietako irakasleek ziurtatuta izango dute. Euskaltegiaren bat ezin bada zenbateko hau ordaintzera iritsi, kaxa komunetik ordainduko zaie bertako irakasleei.

Lehenago ere esan den bezala, IKAko euskaltegi bakoitza autonomia da, eta bere dirusarrerek aukera ematen badiete soldataren zenbatekoa igotzeko edo paga kopurua aldatzeko askatasun osoa dute. Egia den arren gehienek ez dutela zenbateko hori igotzen, beren egoera ekonomikoak ez dielako aukerarik uzten. Batzarrak minimoa ziurtatu eta onartu ostean euskaltegi bakoitzak erabakiko du zer egin soldatekin. Adibide gisa Iruñerriko kasua aipatuko dut jarraian. Iruñerrian IKAko 5 euskaltegi hari dira lanean gaur egun, eta beraien artean adostu zuten guztiek base hori onartu eta kobratuko zutela. Euskaltegi hauetan irakasle errotazioak egon oi dira, ordu batzuk euskaltegi batean eta beste batzuk bestean ematen dituzten jendea. Eta guztietan soldata bera izatea adostu zuten bestela beraien arteko konpetentziak sortuko liritekeelako.

Kategoriei dagokienean esan, IKA ez dagoela kategoria desberdintasunik. Egunean zortzi orduz lan egiten duten guztiek soldata bera jasotzen dute. Pertsona guztiek lan berdina egiten dituzte, eta beraz soldata bera jasotzen dute.

AEK-ko langileen soldaten zenbatekoak eta kategoriei buruzko informaziorik ezin izan dut eskuratu. Baina bertako irakasleen lan baldintzen inguruan zerbait jaso dut. 1995 arte irakasleek lan boluntarioa eta militantea egiten zuten. Urte honetan egoera horrekin amaitu eta irakasleen lana profesionalizatze bidean jartzeko konpromisoa hartzen da. Madrilen

irekitako auzia tarteko prozesua azkartu behar izan zuten, eta gaur egun oraindik horretan ari direla komentatzen dute. Baina egungo baldintzek garai batekoekin zer ikusirik ez dutela ziurtatzen dute. Egungo irakasleek, langabezia sari, kontratu eta erretirorako eskubidea dute. Ala eta guztiz ere oraindik ba omen dago zer aldatua, eta lan baldintzak hobetze bidean segitzeko hiru urteko plangintza eginda eta onartuta dute. Egoera hau izanik ausartu daiteke esatera AEKko langileen soldatak ez direla beste munduko gauza izango, eta desberdintasun handiegirik ere ez dela egungo soldaten artean.

Euskara lan munduan sustatzeko enpresak


Atal honetan Elhuyar eta Emuneko datuak soilik komentatuko ditut. Beste bi elkarteetan orduko langile bakarra bai dute. Eta beraz, ez dago ezer komentatzeko.

Emun eta Elhuyarren ez dute bazkide eta kontratatuen arteko bereizketarik egiten soldatei dagokienean. Elhuyarren berdintasun politika bat jarraitzen dute: lan bera, soldata bera. 3 kategoria dituzte: Administrariak, Teknikariak eta Kudeatzailea. Lehenengo bien barruan gainera beste bereizketa bat egiten dute: Administraria eta Laguntzailea lehenengoan eta Teknikaria eta Laguntzailea bigarrenean. Pertsona bakoitzak bere burura garatu eta Administrari izatetik Teknikari izatera pasa daiteke. Jarraitzen duten beste filosofia bat gainera Administrari eta Teknikarien soldaten artean diferentzia handiegirik ez egotea da. Argi dute desberdintasun bat egon behar duela, lanen arduragatik baina handiegia ez izatea ziurtatzen dute. Honela, gaur egun bi kategoria hauen arteko aldea miloi batekoa da.

Langile berri bat Elhuyarren sartzan denean beti laguntzaile bezala hasten da lanean, edozein kategoriatan. Pertsona horrek proiektuak garatzeko autonomia bat hartzen duenean automatikoko goiko mailara pasatzen da. Beraz, norberaren gaitasun eta inizatibaren menpe dago maila batetik bestera igarotzea. Urtero errebisatzen dira langile bakoitzaren soldatak, eta Sailburuen ardura da berauek erabakitzea. Urte bukaeran Zuzendaritzak laguntzaile mailatik Teknikari mailara igarotzeko nortzuk dauden prestatuta galdetzen du, eta Sailburuek erabakitzen dute.

Eskalari dagokionez aipatu Elhuyarreko soldaten eskala 1 eta 1,96 artekoa dela. Soldatarik baxuena 2.200.000 da eta altuena berriz 4.400.000 (urteko soldata gordina). Beraz, 2 milioitako desberdintasuna dago. Bi zenbaterako hauen artean 5 kategoria bereizten dituzte.

Emunen Lagun Arok finkatutako indizeen arabera dituzte soldatak. Soldatarik baxuena 1,4 indizeari dagokiona da, altuena berriz 2,3 indizeari dagokio. Plantilako pertsonen %80ak, 1,8 indizea omen du eta pertsona bakarra dago indizerik baxuenarekin. Soldatena, alde geometrikoetatik aldenduz garatu beharreko gaia dela uste dute. Beheko grafikoak ongi irudikatzen ditu Emuneko soldatak eta soldata talde bakoitzean egongo den jende kopurua.



Komunikabideak

Komunikabideen ataleko erakundeen soldatei buruz hitz egitean lehenik eta behin esan behar dut Jakin aldizkariko soldaten informaziorik ez dudala eskuratu. Beraz, atal honetan Topagunea, Hik Hasi eta Karmel-eko soldatak komentatuko ditut.

Karmel aldizkarian lan egiten dutenek ez dute inolako soldatarik jasotzen. Zuzendaria, Karmeldarren Euskal Herriko Nafarroako San Joakin Probintziako arduradunek izendatzen dute. Eta beraiek adierazi bezala "*ez da aldizkariaren pentsutan bizi*". Aldizkarian parte hartzen duten idazleek ere ez dute dirurik jasotzen. Esan liteke espeziean kobratzen dutela. Bertan argitaratzen dituzten liburuak oparitzen bai dizkiete lana eskertu nahian.

Hik Hasikoek gai hauetan desastre xamarrek direla komentatzen dute. Urteetan kontraturik gabe aritu dira lanean. Egoera ekonomikoak onera egin ahala langileen egoera normalizatzen joan dira. Orain dela gutxi lortu dute langile guztiak kontratuarekin egotea. Hik Hasiko langile guztiak garai batean irakasle izandakoak dira, eta eguneroko jardunaren poderioz ikasi dutela ofizioa onartzen dute. Hasierako ideia lan guztiak denen artean egitea zen. Ildo honetatik guztiak kontratu bera eta soldata bera dute. Beraz ez dago kategoriarik. Arte Grafikoen konbenioan sartzan dira, eta konbenio honetako kategoriarik txikienari dagokion soldata kobratzen dute.

Topagunean ere orain ari dira lan arloko gauzak pixka bat antolatzen. Orain arte guztiak maila berean egon direla komentatzen dute. Baina azten doazen einen barne antolaketa egituratu beharra ikusi zuten. Eta horretan ari dira. Egindako lan orduen arabera kobratzen dute soldata. Zenbatekoak zehaztea Zuzendaritza Batzordetik ateratako azpisail batzorde bati dagokio. Oraindik zehaztu gabe dituzte, baina 3 edo 4 kategoria sortuko direla diote, ez dute uste kategoria hauen artean diferentzia handirik egongo denik. Esan bezala, ezer zehaztu gabe dago, eta ez dute daturik eta zenbatekorik.

Guraso Elkarteak

Ezin izan ditut Bigen lan egiten dutenei dagokion soldaten informaziorik eskuratu.

Herri mugimenduak

Euskal Konfederazioaren kasuan atal honetan ezin dut gauza handiegirik esan. Pertsona bakar bat ari da lanean, beraz soldata bakarra dago. Ez dago inolako desberdintasunik edo mailaketarik.

Kultura

Gerediagako kasuan soldatak Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen ditu. Beti ere konbenioaren arabera, beraiek "convenio de artes graficas"-en barruan sartzen dira. Bi kategoria dituzte, bat teknikoarena eta bestea administrariarena.

Bertsozale Elkartean berriz, Batzar Nagusiak erabakitzen ditu soldatak. Hona iritsi aurretik ordea Talde Eragileak aztertu eta proposatzen ditu, lehendabizi Zuzendaritza Batzordeari eta honek onartu ostean Batzar Nagusiari. Behetik gorako bidea jarraitzen dute beraz. Soldatek ez dutela behin betirako egitura finkorik argitu zuten. Langile bakoitzak asumitzen duen erresposabilitate mailarekin zerikusia izango omen du jasotzen duen soldatak. Argi esan zuten ez dutela berdintasunaren printzipiorik.

Soldaten eskala 1 eta 1,4 artekoa da Bertsozale Elkartean. Elkatean sartzen beti minimoarekin sartzen omen zara, eta urtez urte langile bakoitzaren lanaren jarreraren eta hartutako konpromisoen arabera soldata aldatzen joaten da. Momentu honetan elkatean jende gehiago sartzen ari dela eta bilera bat egitekotan dira soldaten inguruan ordena pixka bat jartzeko. Zenbat eta pertsona gehiago sartu antolaketa ere konplexuagoa bihurtzen baita.

Argitaletxeak

Euskal Editoreen Elkartean langile bakarra dagoenez, ezin da soldaten arteko konparaziorik egin. Esan daitekeen da soldata Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen duela, beti ere konbenioa oinarri gisa hartuz.

Eusalgintza Elkarlanean Fundazioan ere konbenioz erabakitzen dira soldatak. Beti konbeniotik gora ibiltzen direla azaltzen dute ala ere. Soldaten inguruan politika zehatzik ez omen dute. Eta oraindik konbenioa negoziatzeko orduan harreman naturalago eta pertsonalago batzuk omen daude. Mahai inguruan bilduta adosten dituzte soldatak, eta azken erabakia Gerentziaren esku dago.

Azken urte hauetan ardurak primatzen hasi dira gainera. Argi dute denak ez direla berdinak, denak langileak dira, baina langile guztiek ez dituzte ardura berdinak, eta beraz ezin dituztela soldata berdinak eduki diote. Honela azaltzen dute beraiek egoera: "*Batzuk zortzi ordu egin ostean fitxatu eta etxera doaz, beste batzuk berriz 19:00tan bilera dago, ba bilera, eguerdian bilera baterako gelditu behar bada gelditu egiten dira, jai egunetan 5 egunez Durangora joan behar bada ba han daude,...*".

Eusalgintza Elkarlanean Fundazioko soldatak 1 eta 3 indizeen artean daude. 1 indizeari dagokion hilabeteko soldata 100.000 pta litzateke, 3ari dagokiona berriz 300.000 pta. Beraz

soldata handienaren eta baxuenaren arteko aldea 200.000 pta-koa izango litzateke. Soldatei buruz hitz egitean komentatu zuten Fundazioan dauden gerenteek egiten duten lana, sartzen dituzten orduak, dituzten ardurak,... kontutan izanik beste edozein enpresariok maila berean askoz gehiago kobratzen dutela. Beraiek ba omen dakite hori, Baina ez zaie batere axola, garbi dute zertarako ari diren lanean. Noski soldata duin bat eta gauza minimo batzuk ziurtatuta dituzte.

LABURBILDUZ

Soldatak finkatzearen ardura erakunde bakoitzean organu desberdinaren esku ageri da. Honela zenbait elkartetan Batzar Nagusiak erabakitzen dituen bitartean, beste batzuetan Zuzendaritza Batzordearen esku egongo da zeregin hau. Hala ere esan daiteke erakunde gehienek lan egiten duten esparruari dagokion konbenioa hartzen dutela oinarritzat soldatak zehazteko orduan.

Erakundearen egoeraren arabera bertako langileen lan baldintzak hobetoak edo kaxkarragoak izango direla ikusi dugu. Honela guztiek oinarri bezala konbenioa duten arren erakunde batzuetan konbenioak ezarritako minimotik gorago ibiliko dira, beren egoerak aukera hori ematen dielako. Beste batzutan berriz minimo horrekin konformatu beharko dute. Erakundearen beharrek eta baliabideek baldintzatuko dituzte beraz soldatak.

Soldataren zenbatekoa zehazteko orduan lanpostuaren ardurak primatzen hasi dira azkeneko urteetan erakunde gehienak. Bestela, erresposabilitate mailarekin zerikusia dutela komentatzen dute erakunde bat baino gehiagotan. Lanpostu bakoitzak bere zereginak, ardurak eta erresposabilitateak ditu, eta hauen arabera zehaztuko da soldata.

Indizeei dagokienean 1-3, 1-1´4, 1-1´96, 1´4 –2´3 artean dauden soldatak aurki daitezke erakundeetan. Zenbaki hauek ez digute ezer esaten ordea, beraien zenbatekoa ez badakigu, guztiek indize desberdina bai dute, eta zenbatekoek ez bai dute koinziditzen. Aztertutako erakundeetan aurkitutako soldatarik baxuena 1.200.000 pta urtekoa izan da, altuena berriz 4.400.000 pta urtekoa. Argitu behar da datu hauek ez direla erakunde berdinekoak beraz ez dugu erakunde batean hauen bien artean ageri den adinako desberdintasunik aurkituko. Erakunde baten barruan dauden soldatetan aurkitzen den desberdintasunik handiena 200.000 pta koa da, hilabetean.

Kategoriei buruz esan, gehienez 4 kategoria desberdin aurki daitezkeela erakunde baten barruan. Mailaketa guzti hauek 1- 1,4 indizeen artean sartuko lirateke. Beraz lau soldaten arteko desberdintasunik ezin du handiegia izan.

Lanpostu bera, soldata bera ideia erakunde askotan errepikatzen den ideia da. Emakume edo gizonezko arteko desberdintasunik ere ez da inon aurkitzen.

Interkooperazioa

Interkooperazioari dagokion puntu honetan erakundeek elkarren artean duten elkarlanean sakonduko dut. Honela beste erakundeekin batera egindako lanak, besteekin dituzten harreman motak,... aztertuko ditut.

Kontuan izan behar da aztertutako talde eta enpresa guztiak Kontseiluko kide direla. Beraz, makina bat aldiz egin dute elkarrekin lan Kontseiluko proiektuak aurrera ateratzeko orduan.

Euskaltegiak

Guztiak aipatzen duten kontua da elkarlanaren beharra, batik bat instituzioekiko dituzten harremanak bideratzeko, guztiak bateratuta aurkezteko eta indar gehiago egiteko. AEKK honela jaso du 99/00 urteari dagokion kudeaketa txostenean:

"...helduen euskalduntze-alfabetatzean ari diren bokazio publikoa duten gizarte ekimenezko elkarten arteko elkargune berri bat sortzeko urratsak egingo ditugu (...) Federazio honetan, elkarte, erakunde edo euskaltegi bakoitzak bere izaerari eutsiko lioke; alta, konfiantza eta gure arteko komunikazioa indartzeko gauza garen neurrian, prozesu horrek gizarte ekimena elkarte berri baten inguruan gorpuztea ekar lezake, instituzioen aurrean proposamen bateratuak egiteko gaitasunarekin, e.a.."

Ildo honetatik, Iparraldean AEKkoak Euskal Konfederazioaren baitan daude. Eta beraiek adierazi bezala erakunde honen bitartez lantzen dituzte Iparraldeko instituzioekiko garatuko dituzten politikak.

AEKrekin jarraituz, erakunde honek lankidetzak hitzarmenak sinatuta ditu ondorengo hauekin:

- Herri elkarte eta herri aldizkariak TOPAGUNEA.
- Partaide eta UEU.
- Jaurlaritza.
- UEMA.
- Herrietako Udalak: Santurtzi, Hernani, Usurbil, Oiartzun, Lezo, Eibar, Agurain, Amurrio, Arrasate, Astigarraga eta Elorrio.

Bestalde, AEKren euskaltegiak zuzenean eta herrietako elkarte edo erakundeekin lankidetzan hirurehun kultur ekitalditik gora antolatu dituzte urtean zehar euskal herriko herri eta auzoetan. *Aizu!* eta *Argia* aldizkariekin ere lankidetzak egin izan dituzte irakurzaletasuna sustatzeko egitasmoen barruan.

IKAkoak ere harremanen beharra azpimarratzen dute, elkarlanarena. Elkarlan honen beharra ikusita sartu omen ziren kontseiluan. Bere sorrera baino lehenagotik hari dira lanean elkarte honetan. Eta sortu zenetik bertako zuzendaritzan daude.

Inguruko elkarteekin harreman onak dituztela eta ala izaten sahiatzen direla komentatzen dute. Honela herri mailan harremanak dituzte udaletxeekin, ikastolekin, eskola publikoekin, EHE, guraso elkarteak, lan egiten duten herrietako talde gehienekin,...

Hemendik aparte, Iruñerri mailan; euskara taldeekin eta Euskalerrria irratiarekin ere elkarlanak egiten dituzte. Nafarroan, Oinarriakeko kide dira.

Instituzioei dagokienean:

- Baskongadetan: HABErekin hitzarmena dute.
- Nafarroan: Hezkuntza departamentukoekin. Baina hemen, garai desberdinak bizi izan dituztela komentatzen dute; tripartito garaian hobeto moldatzen ziren. Azken urteotan gauzak okertzen joan dira. Iruñako udaletxearekin ez dute inolako harremanik eta U.P.N.-koekin ere ez dute gauza askorik eskuratu. Funtzionarioekin nahiko ongi moldatzen omen dira, baina gobernuburuekin gauzak bestelakoak dira.

Harreman estuagoak izatea hobeto izango zela deritzote. IKA-k egindako material didaktikoa oso aberatsagarri izango bailitzaiok Nafarroako gobernuko euskaltegiei. Ildo honetatik, ikerketak partekatu edo konpartitzea oso aberatsgarria litzatekeela diote. Gaur egun zerbait egiten dutela aitortzen dute. Daturik edo ikerketa gehien eta interesgarrienak IKA —> Gobernua direkzio bakarrekoak badira ere.

Gainontzeko euskaltegiek; Ilazki, Urrats, Maizpide Ulibarri eta Hitzez "Bertan"-eko kide dira. Erakunde hau EAeko euskaltegi pribatu homologatuek osatzen duten elkarte bat da. Elkarte honi buruz hitz egitean Hitzez eta Ilazkikoek komentatu zuten ez dela oso praktikoa. HABErekin dirua negoziatzeko, instituzioen aurren batera agertzeko balio omen die. Betiere HABE-rekiko dituzten harremanetan. Egora tristea dela komentatzen dute, eta elkarteko kide batzuk filosofiak aipatzen omen dituzte, baina ez omen dago filosofiarik. Diruak batzen ditu elkarte horretara, dirua eskuratzeko tresna soila omen da.

Bestalde, beste mota bateko elkarlana lantzen dute Donostiako euskaltegiek euren artean (Ilazki, Urrats, Hitzez). Hauek elkarrekin elkartu eta batera lan egiten dute; irakasleen soldatak eta matrikulen zenbatekoa zehaztu, publizitate kanpaina bateratuak landu, e.a. "Bertan" baino lagungarriagoa eta praktikoagoa omen da. Hobeto funtzionatu eta lan egiten duela esaten dute, eguneroko lanerako baliagarriagoa dela.

Euskal Herritik kanpora oso harreman gutxi dituzte euskaltegi guztiek. Dituzten apurrak kontaktu puntual eta pertsonalak dira zenbait euskal etxeekin (Madril, Argentina). Euskaltegietak irakasleak kanpora denboraldi batez klaseak ematera joan ostean egindako harremanak nagusiki.

Interkooperazioaz galdetzean guztiek ere elkarlanaren kultura zabaldu beharraz mintzatu dira, ohitura hori hartu beharraz.

Euskara lan munduan sustatzeko enpresak

Emunek harremanak ditu bere antzeko zerbitzuak eskaintzen dituzten euskaltegiekin (IKA, AEK). Hartu emanak dituzte baita ere Eusko Jaurlaritza eta Sei-rekin.

Euskalan eta Emunen artean harreman onak dituztela baieztatu didade bi aldeek. Euskalan AEDtik sortutako elkarte bat da, Emunek lantzen duen gai beragatik kezkatutako pertsonak biltzen ditu eta gainera ingurune berean dabilta lanean.

Ez da gauza bera gertatzen Elhuyarrekin. Emun eta Elhuyarrek zerbitzu bera eskaintzen dute, baina ez dituzte harreman onak beraien artean. Oraintxe hasi omen dira adiskidetzen, gauzak baretzen eta zenbait hartu eman izan omen dituzte, baina ezer gutxi. Guzti honen arrazoa Emunen hasieratan aurkitzen da. Emun sortu zenean (hasieran beste izen batekin) Elhuyarrek eta Eskoriatzako Irakasle Eskolak sortu zuten. Gero tirabirak izan ziren beraien artean eta azkenean banandu eta Emunek bere bidea jarraitu zuen Irakasle Eskolaren eskutik. Gaur egun ere Irakasle Eskolaren filiala izaten jarraitzen du. Gainera ez dugu ahaztu behar Emun eta Elhuyar konpetentzia direla, eta beraz bakoitzak bere interesak zaindu eta defendatu behar ditu.

Elhuyarrek bere aldetik elkarlanak burutu izan ditu Uzeirekin, UEUarekin, Elkarlanean Fundazioarekin,..... Baina elkarlan hauek proiektu jakinetarako izan zirela zehazten dute. Elkarlan inportanteena Kontseiluarekin omen dute. Helburu berdineko erakundeei buruz galdetzean Artez ekin harremanak dituztela komentatzen dute. Eta ondoren erlazioak dituzte Zientzia Museoarekin, Leioako irakasleekin, baina hauek gehienbat kolaborazio laguntzak omen dira.

Kanpora begira oso harreman gutxi dutela aitortzen dute guztiek. Emunekoek Katalunia eta Kebekeko zenbait erakunderekin hartu-emanak izan omen dituzte. Eta bide honetatik, harremanak indartzeko gogoaz azaltzen dute, lurralde hauetako esperientziatik asko omen dago eta ikasteko.

Komunikabideak

Erakunde guztiak kontseiluko kide dira eta bertako bazkideekin harremanak dituzte. Topagunekoak gainera Kontseiluko zuzendaritza Batzordean egon dira urteetan.

Topagunekoek diote gehienbat harreman puntualak dituztela erakunde desberdinekin. Proiektu konkretuetarako elkartzen dira. Honela, harremanak izan dituzte AEK eta Uztarriarekin.

Beren aldetik Hik Hasikoek hezkuntza arloko jende pila batekin harremanak dituztela diote, harreman hau gehienbat kolaborazio txikietan e.a izaten da. kontaktu bezala Euskal Herriko ikastetxe guztiekin harremanak dituzte. Kanpora begira aldizkaria Idaho-ko ikastola batera bidaltzen dute. Eta Espainia mailan Katalan eta beste lurralde batzuetako jendearekin elkarlan txikiak egin izan dituzte. Beren lan esparrua, lehenago ere aipatu bezala, hezkuntza ez

unibertsitarioa da, eta beraz mundu honetan mugitzen diren agente gehienekin kontaktuak dituzte.

Guraso Elkarteak

Bizkaiko ikastetxe publikoetako guraso elkarten federazioa den aldetik hezkuntza arloko ainbat jenderekin harremanak dituzte.

Dirulaguntzak eskuratzeko orduan ere harremanak dituzte Hezkuntza saila, Foru Aldundia, Bilboko Udala eta BBKrekin. Nahiz eta harreman mota hau interesek sortua izan eta ez elkarlana, berdinetik berdinerako hartu emana.

Bestalde eta lan honetako erakunde guztiak bezala Bige ere Kontseiluko bazkide da. Gunea, Bilgunea eta Konfederazioa erakundeekin ere harremanak dituzte.

Herri mugimenduak

Euskal Konfederaziokoek euskararekin lotura duen edozein elkarterekin harremanak dituzte. Kontseilua eta Hizkuntz Kontseiluko kide dira. Lehenengoan lehendakari ardurak betetzen ari dira eta bigarrenean berriz diruzain izateaz gain Zuzendaritza Batzordeko kide dira. Kontseiluarekin gainera gero eta lan estuagoa egiten dutela komentatzen dute.

Herriko etxeetako hautetsiekin ere harremanak dituzte. Baina arlo honetan dituzten hartu emanak, lan ildoetan aipatutako normalizazio planen ingurukoak izango dira.

Kultura

Bertsozale Elkartekoek maila desberdinetako harremanak dituzte Gizarte Erakunde eta Gizarte Eragileekin. Urtean behin edo bi urtean behin elkarteekin esertzen dira beren berri emateko, Bertsozale Elkartearen kezkak azaldu eta besteen informazioa eta kezkak jaso. Gizarte Erakundeen barruan euskalgintzaren inguruan dabilzan mota guztietako elkarteak daude; elkarte, fundazio,... Gizarte Eragileak berriz euskararen munduan eragiletza bat duten erakundeak dira; administrazioa, alderdi politikoak, sindikatuak,...

Gero proiektu konkretuetarako elkarlanak egin izan dituzte Uzeirekin, Elhuyarrekin, AEKrekin,... baina beti ere proiektuen inguruan.

Gerediagakoak beren aldetik Durangaldeko elkarte guztiekin koordinatzen dira. Herriren batean ekintza bat antolatzeko orduan herriko beste elkarteren batekin elkarlanean antolatzen saiatzen dira. Gero, harreman asko dituzte baita ere Durangoko Liburu eta Disko azokara begira, ala nola, Editore eta Idazleen Elkartearekin.

Estatu mailan Gerediagakoak Zaragozako elkarte batekin harremanak dituzte, haiek ere liburu azoka bat antolatzen bai dute. Bertsozale Elkartekoek berriz Espainiako lurralde desberdinetako inprobisatzaileekin harremanak dituzte; Cartagena eta Balearrak kasu. Galizia, Kanaria, Almeria, Salamanca eta Madrilako pertsonalitateekin ere harremanak dituzte. Nazioarte mailan munduko inprobisatzaileen errealitate batzuen informazioa dute, baina

gehienbat informazio trukaketa da, harreman handiegirik gabe. Hegoamerikatako inprobisatzaile mugimendu zabal batekin harreman estuagoak dituzte.

Argitaletxeak

Euskal Herri mailan Editoreen Elkarteak harremanak dituzte Idazle eta Itzultzaileen elkarteekin. Guztiek pisu berean dituzte bulegoak, eta beraz egunero ikusten dira. Gauza asko landu dituzte hirurek batera.

Estatu mailan editore Katalan eta Galegoekin harremanak dituzte. Mundu mailan berriz Islandesekin hartu emana dute. Oro ar, erlazio oso ona dute hizkuntza gutxituetan argitaratzen duten editoreekin, guztiek problematika oso antzekoa dutelako.

Euskalgintza Elkarlanean Fundazioarentzat oso ezaugarri inportantea da elkarlanarena. Izenetik bertatik abiatuta. Izena luze xamarra dela onartzen dute, baina Joseba Jakak honelaxe deitu nahi zion, izugarrizko garrantzia ematen ziolako elkarlanari. Josebak ezin izan zuen Fundazioa errealitate bihurtuta ikusi eta bere omenez ipini zioten izen hori.

Fundazioak lan egiten duen hiru esparrutan elkarlana landu izan du:

- Ekoizpenean. Musikak arloan Esan Ozenkirekin lan egin izan du. Liburuetan berriz, beste argitaletxeekin harremanak dituzte.
- Banaketan: argitaletxe askoren banatzaile dira.
- Salmentan: beste enpresa askoren lanak saltzen dituzte.

Azkeneko bi arlo hauetako harremanak ordea harreman komertzialak dira gehienbat. Gehienbat ekoizpenean landu izan dute elkarlana. Testugintzan Ikastolen Elkartearekin 20 urte baino gehiago daramatzate Euskal Herriko ikastetxeetako hemen sortutako testuak ekoizten. Hiztegi gintzan Elhuyar eta Uzeirekin makina bat lan egin dituzte. Egunkariarekin ere proiektu pila bat atera dituzte aurrera.

Espainia eta mundu mailan estatuko eta mundu mailako argitaletxe eta diskoetxe askorekin lan egin dute. Baina harreman hauei ezin zaie elkarlan deitu, gehienbat harreman komertzialak direlako. Euskal Herritik kanpora dituzten harremanetan interes komertzialak egoten dira beti bi aldean artetik.

LABURBILDUZ

Erakunde bat baino gehiagotan azpimarratu dute elkarlanaren garrantzia eta beharra. Ezaugarri garrantzitsu bezala kontsideratzen dute elkarlana. Eta landu beharreko balore bezala. Behin baino gehiagotan azpimarratu dute erakundeen arteko harremanen beharra, hau izango litzateke erakundeok Kontseiluaren baitan bilduak egoteko arrazoi etako bat.

Orokorren inguruko erakundeekin harreman onak dituztela esan dute. Honela, herri mailan mugitzen diren elkarteek herriko beste elkarteekin harremanak dituzte, eta elkarlanean proiektu asko lantzen dituzte. Normalean helburu bera duten erakundeak elkartzen dira, liburugintzan lanean ari direnak (euskalgintza elkarlanean fundazioa eta Elhuyar) batera lan

egin izan dute behin baino gehiagotan. Euskaltegiek ere maiz landu izan dute elkarlana beraien artean. Honela, euskaltegi homologatu guztiak erakunde bat osatzen dute, eta Donostialdeko euskaltegiak beste erakunde batetan bilduta daude.

Harremanez hitz egiterakoan bi mailatako harremanak bereiz daitezke. Bata maila bereko erakundeekin edo helburu beraren alde lanean ari diren erakundeekin izan dezaketena. Eta bestea agintariekin dutena; udalak, Diputazioak, Foru Aldundiak,... Lehenengo motako harremanetan berdintasunean oinarritutako elkarlana izango dute, helburu edo proiektu amankomun batetarako elkartu eta hura landu. Bigarren motakoetan berriz diru kontuak izango dira nagusi, elkarteak laguntza eske joango dira agintariengana, kasu honetan ez dago berdintasunean oinarritutako harremanik. Interesengatik harremana izango da.

Guztiak euskal herri mailan lan egiten dute, eta gure lurralde hau handia ez denez guztiak elkar ezagutzen direla esan behar da. Honek harremanak errazten ditu, eta baita zaildu ere. Argi dute gutxi direla eta indarrak gehitu egin behar dituztela. Baina tirabirak eta haserreak sortzen direnean elkar ezagutze eta gutxi izate horrek gauzak zaildu besterik ez ditu egiten. Nahiz eta haserretu argi dute hurrengo egunean elkarrekin lanean jarraitu beharko dutela.

Euskal Herritik kanpora Espainia mailan erakundearen jarduerak besteekiko harremanak markatuko ditu. Honela elkarteek beraien lan berdina egiten duten elkarteekin hartuemanak dituzte, informazio trukaketa gehienbat. Enpresa bezala eratuta dauden erakundeek dituzten harreman gehienak berriz harreman komertzialak dira.

Mundu mailan erakunde gehienek, denek ez esatearren oso harreman gutxi dituzte. Euskaltegiek zenbait euskal etxerekin hartuemanak dute, baina gehienbat maila pertsonalean, ez euskaltegi bezala. Enpresek berriz maila honetan dituzten harremanak ere harreman komertzialak dira nagusiki. Badaude noski mundu mailan problematika berdinen haurrean eratu diren erakundeak, munduko leku desberdinetan baina arazo berak dituztenak, eta antzeko lana burutzen dutenak. Hauekin zenbait harreman badituzte Euskal Herriko elkarte batzuk. Adibidez; euskal editoreen elkartekoek hizkuntza gutxituetan editatzen duten beste zenbait erakunderekin ere hartuemanak dituzte, bertsozale elkartekoek berriz Hegoamerikatako inprobisadoreekin harremanak dituzte.

Gorago aipatu bezala Espainia mailako edo mundu mailako harreman hauek informazioa trukatzera mugatzen dira. Euskal Herri mailako harremanetan berriz elkarlana izango litzateke nagusi. Indarrak batu eta helburua lortzeko lan bateratu egin.

6.- ONDORIOAK

Proiektuaren oinarri diren lau puntuetako emaitzak ikusi hondoren, eta erakundeetan entzundakoak entzun ondoren. Iruditzen zait inongo dudarik eta lotsarik gabe hitz egin dezakegula Gizarte Ekonomiaz Euskararen Gizarte Erakundeez ari garenean.

Euskararen Gizarte Erakundeak maiz militantziarekin lotu dira, baina ideia hau ez dator bat gaur eguneko errealitatearekin. Lan honetan zehar ikusi ahal izan denez, ongi antolatutako egiturak aurki daitezke erakunde hauetan, urtean milioiak mugitzen dituzten enpresak eta pertsona askori lana eskaintzen dietenak. Baina honek ez du esan nahi militantzia alde batera utzi dutenik, konpromiso pertsonalekin eta asko landutako filosofiekin topo egiten bai da erakunde bat baino gehiagotan. Mundu ekonomikoan sarri aurkitzen ez diren ideia eta jarrerak, nagusi den lan egiteko eredu kapitalistarekin uztartzen asmatu dutela aitortu behar da. Baloreei eta helburuei muzin egin gabe.

Erakundeen egitura juridikoei begiratu ezker, Gizarte Ekonomiaren baitan bereizten direnekin bat datozela ohartzen gara. Aztertutako erakunde gehienak Elkartek dira, gero kopuruaren arabera Kooperatibak, Sozietate Mugatuak, Fundazioak, Federazioak eta Koordinadorak daude. Eraketa formagatik izanez gero ia guztiak sartzen dira Gizarte Ekonomia terminoan.

Kanpoan geldituko liratekeen bakarrak Sozietate Mugatuak dira. Baina hauen funtzionamenduan pixka bat erreparatu ezker, ohartuko gara sisteman kapitalistan ulertzen de Sozietate Mugatu eredutik gutxi dutela. Enpresa hauetako partizipazioen jabe diren gehienak, enpresa bertan egiten dute lan, gainontzeko langileen zeregin eta irabazi berberekin. Enpresatik kanpo dauden bazkideen kasuan ere argi dago ez zituztela partizipazioak aberats bihurtzeko asmoarekin eskuratu. Bere garaian, gizartean hutsune batzuk ikusten zituztelako eratu zituzten erakundeak. Interes ekonomikoei begiratu gabe, behar sozialak asetzeko.

Idea honen adierazgarri da, irabaziak bazkideen artean banatu beharrean berriro enpresan berrinbertitzea. Proiektu berriak garatuz, lanpostuak sortuz, eta azken finean ingurua aberastuz. Ez hainbeste, normalki ulertutako aberastasun materialean, baizik eta euskal gizarte osoarentzako izango den aberastasuna ekarriz, aberastasun kulturala.

Aزتututako erakundeetan lanean ari diren pertsona gehienek argi dute beraiek ez direla egun duten lanpostu horretan aberastuko. Baina ez zaie gehiegi axola, egiten dutenean sinisten dute. Bizitzeko adina ematen dien soldata eta lan baldintza duin batzuk dituzte, eta horrekin konformatzen dira.

Erakunde askotan gainera langile gehienak bazkide dira. Norberaren enpresaren eta eguneroko zereginen nagusi izatek dakarren satisfazioarekin. Ildo honetatik guztiek izugarritzko garrantzia ematen dieta partehartzeari. Batik bat eguneko laneko jarrerei eta aportazioei. Arlo honetan, elkarte gehienak langile kopuru txikia izatean ez da inolako zailtasun sortzen. Erakunde handietan ere lan taldeak nagusi dira, langileen partehartzea bultzatu nahian. Erakunde bat baino gehiagotan komentatu didate gainera, beraiek ez dutela

langile funtzionarioik nahi, helburuarekin bat datorren eta egiten ari denean sinesten duen jendea nahi dutela.

Jabetza mailari dagokionean berriz partehartze txikiagoa ikusten da. Erakunde gehienetan jabetza bazkideen esku aurkitzen da, baina kasu hauetan elkarrekin jabetza txikiak dituzte. Jokoan jabetza handiak daudenean berriz, hauek Fundazioen esku edo eta euskal kulturgintzan lanean ari diren entitate desberdinen esku utzita daude. Ez da behintzat pertsona gutxi batzuen eskuetan jabetza handiegirik pilatzen.

Soldaten arteko desberdintasunak ere ezerezean gelditzen dira. Langileen artean elkartasunezko izpiritu bat nabari da gai honetan. Noski, lan desberdinak eta soldata desberdinak egongo dira, baina tarte handiegirik gabe. Honela, erakunde baten baitan aurkitzen diren soldaten arteko diferentziarik handiena 200.000 pta-ko da hilabetean. Enpresa "normaletako" soldatak eta berauen arteko aldea ezagutu ez harren, 200.000 pta-ko aldea oso desberdintasun txikia dela esatera ausartuko nintzateke.

Gizarte Ekonomiaren beste ezaugarri bat interkooperazioa da. Arlo honetan, makina bat elkarlan ikusi ahal izan dira Euskararen Gizarte Erakunde desberdinen artean. Gai honen inguruan beraiek ere argi dute ez daudela restatzeko moduan. Gure lurraldea hain txikia izanik beraien indarrak batu behar dituztela eta proiektu bateratuak kaleratu. Inori lekurik jan gabe, erakunde bakoitzaren desberdintasunak errespetatuz, baina elkarri lagunduz.

Argi dago gainera erakunde hauek betetzen dituzten lan esparruak eta eskaintako zerbitzuek behar sozial bat betetzen dutela. Gero eta jende gehiago gara geure eguneroko bizitza euskaraz egin nahi dugunak. Eta horixe da hain zuzen erakunde hauek eskaintzen digutena. Badakigu hauen zereginarekin bakarrik euskara eta euskal kultura ez direla mantenduko. Baina euskaraz bizi nahi dugunoi erraztasunak eskaintzen dizkigute.

Bukatzeko esan, Gizarte Ekonomia gehienontzat (erakundeetako kideak barne) termino ezezaguna izan harren, pixka bat arakutzen hasiz gero gure inguruan bere adibide asko eta garrantzitsuak aurkitzen direla. Ikerketa honetako oinarri izan diren erakundeak kasu. Kontuan izan beharreko eta aurrerantzean ere ikertzen jarraitu beharreko gaia dela baieztatuko nuke.

7.- BIBLIOGRAFIA

- Elena Villanova y Rosa Villanova. *Las otras empresas*. Talasa. 1996. Madrid.
- Hik Hasi. 1995.ko Ekaina.
- AEK. 99/00 Kudeaketa Txostena.

Internet:

- www.socialeconomy2001.se/eng/index.html
- www.aries.eu.int/
- www.uv.es/
- www.ulg.ac.be/ciriec.htm
- www.unites.uqam.ca/crises/es/menuesp.htm
- www.economie_solidaire.gouv.fr
- www.ffes.org
- www.cepes.es
- www.eurosur.org/IMAGINA/reas.htm
- www.kontseilua.org

Humanitateak-enpresa, KAP 2001

Gizarte Ekonomiaren printzipioak Euskararen Gizarte Erakundeetan

HUMANITATE ETA
HEZKUNTZA ZIENTZIEN
FAKULTATEA



8.- ERANSKINAK

GALDETEGIA

- Zein da zuen helburua?
Tamaina ekonomikoa
Pertsona, diru eta baliabide kopurua
Urteko aurrekontua
- Zer egiten duten helburu hori lortzeko, nola lortu, zein tresna edo bide erabiltzen dituzten.
- Zer egiten duzue irabaziekin?
 - o Jabeen artean banatu
 - o Helburu zehatzetara bideratu
 - o Berrinbertitu
 - o Enplegu berriak sortu
 - o ...
- Nola antolatuta dago enpresa?
- Eraketa modua. Erantzukizuna noren esku.
- Organigrama formala/informala.
- Erakundeak bizi izandako bilakaera
- Nora iristen diren, hedapena.
- Nola edo zeinek artzen dituzte erabakiak?
- Zenbaterainoko partehartzea dute langileek?
 - o Enpresaren jabetzan
 - o Eguneroko lanean
- Partehartze horrek zer baitetarako balio du? Iritziak errespetatu eta kontutan hartzen diren edo ez.
- Zenbatekoa da soldatarik altuena? Eta baxuena?
- Nola erabakitzen dira soldadak?
- Zenbat kategoria daude?
- Zuen antzeko beste elkarteren batekin lan egiten al duzue? Euskal Herri mailan eta estatu mailan edo mundu mailan. Zeinekin?
- Helburu berdina duten erakundeekin hartuemanik ba al duzue? Zeinekin?
- Nolakoa da harreman hau?